

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko maiatzak 14

192. zenb.

**Kalean
euskaraz?**


%25!

Turbineroak
**Industrialak
eta ekologistak**

Elkarrizketa
**Maria Luisa Peña
familia hezitzailea**

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



xey

MOBILIARIO DE COCINA Y BAÑO

Gernika, 1993-05-11

Gatzagan,
erdi erdian...
ZUHAITZ
JATETXEA



ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46


VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Aitor ezaguna:

Gaur, **Ecoren** artikuloa erreparatzen ari nintzela zurekin gogoratu naiz, eta oso lanpeturik nabilen arren, parentesia egin nahi izan dut lau lerro zuri igortzeko.

Ezagutuko duzu akaso, **Temesvar** "misteriotsuaren" eredu abstraktoa (hala definitzen du **Ecok** berak) **Salamanca**ko **doktoaz**. Salamanca ko doktoa jakintsua da astronomia eta geografia gaietan, munduko inguru guztiak nolakoak diren erakutsi ahal du, inguru haietako biztanleak nolakoak diren, zeintzu bide ibili behar diren zati apartatu horietarik bakoitzera heldu ahal izateko.

Bapatean eta inork espero gabe, **Cristobal Colón** aurkezten da Salamanca ko doktoen aurrean, hipotesi berriak defendatzen dituela lurraren forma eta dimentsioaz, finean "sartaldetik sortaldea bila daitekeela" esanez.

Salamanca ko doktoak, noski, errefusatzet lanetan iharduten du; halere, Colonek Amerika deskubritzen du (ez **EEBB**), lurra "aldatu" eta ordura arteko teoria guztiak indargetu.


Salamanca ko doktoari, irtenbide bi geratzen zaio: bata, "zerotik" ikasten hastera berriro maisu izatera heltzeko eta biga,

zientzia berri baten oinarriak ezartzea, Amerika deskubritzearen negatibotasun moral eta kulturala defendatzeko. Bigarren diziplina honetan jakintsu bihurtzerik posible luke, ostera maisu izateko milaka jarraitzaileentzat. Amerika hor dago, egia da, baina gauza txarra da hura esistitzea eta kalte handiak ekarriko dizkigu gizakioi.

Aitor ezaguna, barkatuko didazu zurekin gogoratu izana, baina oker zabiltzala uste dut, **Sabino Arana** "intelektualki defendagaitza" 1993an presentagarri aurkeztu nahi dutenak oker dabiltzan bezalaxe.

Nahiago zintuzket, lagun, neure aldameanean gizakiaz mintzatuz, politika gaizto horietan denbora galdu alde.

Fdo: **JON IÑAKI LASA**



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publikatzea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñitza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 76 08 14 / 77 13 78

Memesa

79 42 22



ITURRIOTZ taberna

Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Gaztetxeari buruz

Arasateko Udalarari: Eta baita, jakinean egon dadin, Arrasateko herriri ere, pare bat gauza aipatzea gustatuko litzaiguke. Jakingo duzuen bezala, badira jadanik bi urte Arrasateko zenbait gaztek ospital zaharreko lokala okupatu gurela, gazteriak zeuzkan behar batzuen eta inoiz ere bete ez diren promesa batzuen konklusio bezala. Iazko irail eta urriaren artean, udalaxeak derrigorrezko kondizio / betebeharrak batzuk ezagutarazi zizkigun. Hauetako bat "zaborra, behar den egunean, orduan eta lekuan botatzea" da, eta gu zera esan beharrean gaude, ordutik horrela egin dugula beti. Beraz, salatu beharra daukagu, ez bakarrik azken aldirian baina bai gehienbat orain, jendeak zaborra uzten duela gaztetxe inguruan, eta ez zabor arrunta bakarrik, CESPAA eta horrelakoek bota behar izango dutena, ordea.

Alde horretatik, behintzat, zuek jakinean egotea da gure asmoa. Aipatu beharreko beste gauza bat, "edozein obra edo konponketa egiteko baimena eskatu beharra" da. Kondizio hauek ezarri baino lehenago, bi konponketa saio egin genituen gure geuk, Arrasateko zenbait gaztek, geure kontu eta geuk ateratako diru eta izerdiarekin, lokal hotz honi beste itxura bat emateko. Hala ere, aspalditik, tximinia edo su baju

bat jartzeko proiektu bat daukagu. Jarri zen martxan eta baita udalaxearen baimen-eskakizuna bete ere. Erantzuna ezezkua eta arrazoni zehatz barik. Eskakizuna errekurritu eta erantzun berdina. Zergatik?

Guk gure ingurunea errespetatu nahi dugu, bai zarata bai seguritate minime dagokienez, baina legea, arrazoi praktikoak alde batera utziz, burugogortasunean sostengatzen denean, ez dugu bidezko zat ezta normalizat ere ikusten. Eta zuek zer uste duzue?

**A.G.A.K.O. (ARRASATEKO
GAZTE ALTERNATIBOEN
KOFRADIA ORGANIZATUA)**

Sanitate publikoaz

LAB sindikatuak SVS-Osakidetzarako egitasmo estrategikoak euskal gizarte osoari ekar diezaiokeen ondorio larriengatik kezkatutik, eta gizarte eragile garen aldetik, zera adierazi nahi dugu:

Hau ez da sanitate sistema publikoak dituen arazoetarako konponbidea: arazok bestelako konponbidea behar dute eta gure ustez ondorengo zutabeetan oinarrituta.

Sanitate asistentzia eus-

kal hiritar guztien eskubidea dela onestea, bakoitzaren egoera sozioekonomikoa kontutan hartzeke eta osasuna negozio bilakatu gabe.

Osakidetzak sanitate prestazioen garapen eta ihardun egokia bermatuko duen tresna izan behar du.

Eraldaketa prozesu honek, gizarte eragile ororen parte-hartze eta adostasuna eduki behar du oinarri. Sanitatean dauden arazoaren kontsentsuzko deskribapena eginez eta arlo guztiak batera (administrazioa, langileak, erabiltzaileak) konponbidea bilatuz, euskal sanitate publikoa eratzeke guztion partaidetza bermatzeko beharrezko baliabide guztiak antolatu behar ditugu. Sistema, honako irizpide hauetan oinarritu behar da: dohatasuna, unibertsaltasuna, berdintasuna, eraginkortasuna, hiritargoaren parte hartzea.

Horregatik ondorengo egunetan egitasmo hori, goian aipatu ditugun irizpideetara ekarri nahirik, kanpaina zabala antolatu dugu ELA eta CCOO sindikatuarekin batera, batez ere sanitateko langile eta hiritargoaren nahieza jasoko duten ekintzak eratuaz (informazioa zabaldu, enkarteladak, hitzaldiak, asanbladak, sinadura bilketak eta abar).

Honen bidez, denok gonbidatzen zaituztegu parte har dezazuen.

**DEBA GARAIKO LAB-
OSAKIDETZA**




Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Errespetatzen dira giza eskubideak gaur egun?



Roberto Aldaz
Injinerutza ikaslea
(23 urte)

Gutziz, guztiz, uste dut ezetz. Gauza batzuetan, gertatzen diren gauza batzuetan, ez dira errespetatzen.



Ana Mercedes Tabares
Etxekoandrea (47 urte)

Ez dut uste. Gauza asko eta asko ez dira errespetatzen. Bai hemen eta bai beste toki askotan.



Patxi Arburua
Elektrizista (45 urte)

Ez, inondik ere ez, garbi dago, eta hor dauzkagu ejemplo ederrak, preso eta errefuxiatuekin. Hor itotzen ari dira ezker abertzaleko mundu hori.



Maribi Zurutuza
Umezain lanean
(31 urte)

Uste dut baietz. Jeneralean bai. Gazteriak gainera nagusiek baino errespeto gehiago die horrelako gauzei.



Juan Olalde
Oñatiko Zelaian langilea
(19 urte)

Nik uste dut ezetz. Mandatarario haundienek ez dute kasurik egiten, eurena bakarrik pentsatzen dute, eskubideei kasurik egin barik.



Monica Joaquin
AEKn ikasle (16 urte)

Tira, uste dut ezetz. Ez dakit nola esan, baina hemen Euskal Herrian ez, ez dira errespetatzen.



Asier Biteri
Langabetua (21 urte)

Ez dira errespetatzen. Jendeak ez du elkar errespetatzen, eta jendea ez bada errespetatzen, ez dago hortik giza eskubiderik.



Trinidad Garcia
Etxekoandrea (60 urte)

Nik uste dut ezetz. Zer esango dizut ba, lanerako eskubidea ere hor dago, eta gero eta langabezia gehiago dago.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

GIZA-ORIENTAZIOA
Kristalezko bola / Tarota
PILAR OCONHOR
Ordua hartuta: 79 67 65

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxetxak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualitoria 79 05 00	
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 14	
Egunez: Azkoaga.	
Gauetz: Camacho.	
Larunbata 15	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
Igandea 16	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Corcuera. Santa Marina.	
Astelehena 17	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Irizar. Erguin.	
Astearte 18	
Egunez: Amezua. Santa Marina.	
Gauetz: Amezua. Santa Marina.	
Asteazkena 19	
Egunez: Ruiz. Maala	
Gauetz: Ruiz. Maala	
Osteguna 20	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Morales. San Andres.	

14 OSTIRALA

ZINEA

“De ratones y hombres” (7,10)

ROCK KONTZERTUA

“Censura” eta “Exhibición de atrocidad” taldeen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean.

BERTSO-JAIA

Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jon Maia eta Igor Elorzarekin bertso jaia. Elorrioko Arriola kultur aretoan. Gaueko 10etan.

ANTZERKI EMANALDIA

“Louvier’s” taldearen “Rizando las ondas” obraren antzепенa. Gaueko 10etan. Aretxabaletako Kurtzeberri eskolako aretoan.

MUSAKOLAKO JAIAK

Auzoko jubilatuei afari omenaldia. arratsaldeko 7.30etan. Kataide jatetxean. “Drindots” taldearen dantzaldia, gaueko 11etan.

15 LARUNBATA

ZINEA

“Heroe por accidente” (5,7.30,10)

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZKO MANIFESTALDIRA AUTOBUSAK

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Donostian antolatutako manifestaldira joateko autobusak. Irteera: 4.15etan. Gari-baitik.

EDADETUENTZAKO KIROL JAIA

Deba Garaiko edadetuentsako II. kirol jaia. Oñatiko Kiroldegian. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

II. TRIKITIXA EGUN MUNDIALA

Mendi irteera, goizeko 8etan Portaloitik. Hamarretakoa, goizeko 11.30etan, Garagartzan. Futbol partidua, 12etan. Bazkaria, eguerdiko 2etan. Ondoren, trikitixa, jokoak...

MUSAKOLAKO JAIAK

Pilota partiduak. Motorzaleen kontzentrazioa. Herri bazkaria Kataiden.. II. ajedrez txapelketa, San Antolin ikastolan. Sokatira txapelketa. Bola txapelketa.

PIRAGUISMO HASIERAKO IKASTAROA

Piraguismo hasierako ikastaroaren lehen eguna. 16 urte-tik gorakoentzat. Goizeko 11etatik aurrera. Albinako urtegia.

16 IGANDEA

ZINEA

“Heroe por accidente” (5,7.30,10)

MUSAKOLAKO JAIAK


Gimnasia erritmikoaren erakustaldia, eguerdiko 12etan. Nazioarteko mus txapelketaren azkenak, arratsaldeko 4.30etan. Herri kirolak, arratsaldeko 5.30etan. Rock jaialdia: Su ta gar eta E.H. Sukarra taldeekin, arratsaldeko 7.30etan.

OTALA-ZELAIKO JAIAK

Ikastetxeen arteko bizikleta irteera 10.30etan; animaliekin jokuak 11.30etan; bertsolariak 1ean; soka tira 5etan; patata tortilla txapelketa 6.30etan; dantzaldia 6etatik 8.30ak arte.

PARAPENTE, DELTA ETA GLOBO ERAKUSKETA

Parapente, delta eta globo erakusketa. Kurtzeberri-Urkulun. Ikarus taldeak antolatuta.



ELKARRIren SINADURA BILKETA

Musakolako Jaiak aprobetxatuz, Elkari taldeak sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditu. Interesatu guztiak pasa zaitezketekin sinatzea.

MUSAKOLAKO JAIAK

Gaur, Roneoko erromatar zubiaren inaugurazioa arratsaldeko 7.15etan, Kataide jatetxean jubilatuei afari omenaldia 7.30etan eta gaueko 11etan “Drindots” taldearekin dantzaldia. Larunbatean, pilota partiduak, karate erakusketa, meza nagusia, motoristen kontzentrazioa goiz partean eta sokatira, bonba japoniarren jaurtiketa arratsaldean. Gauetz, bola txapelketa eta “Lisker” taldearekin dantzaldia. Igandean: gimnasia erritmiko erakusketa, herri kirolak eta 7.30etan rock jaialdia, Su ta gar eta E.H. Sukarra taldeekin. Jai egitarauaren barruan, Musakolako jubilatuek eskulanean erakusketa zabalduko dute Jubilatutxean, larunbatean goizeko 10.30etatik arratsaldeko 7etara.

17 ASTELEHENA**ZINEA**

"Heroe por accidente" (7,9.30)

BILERA: ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA

- Eskola publikoaren legeari buruzko bilera informatiboa. Arratsaldeko 6.30etan. San Viator ikastolan.
- Eskola publikoaren legeari buruzko bilera informatiboa. Arratsaldeko 6etan. Musakolako San Antolingo ikastolan.

SAL TSA IKASTAROA

Saltsa ikastaroaren hasiera, 28a bitartean. Arratsaldeko 6etatik 7.30etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. Musakolako Kiroldegian. Emalea: Arnaldo Patterson.

HITZALDIA: ZER ARI DA GERTATZEN BOSNIAN?

"Jugoslavia gerran" izeneko hitzaldia. Emalea: S.O.S. Balkaneseko partaide bat. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Arrasateko Talde Antimilitaristak eta Komite Internazionalistak antolatuta.

KALE MOZKETA LEGARREREN

Saneamentu obra batzuk direla eta, datorren asteartea, maiatzak 18tik aurrera egun batzuetan, Legarreko Gelma fabrika parean moz-tuta egongo da bidea, eguraldi txar txarra egon ezean. Hori dela eta, Arrasateko sartu-irteeretan barientea erabiltzea gomendatzen da. Kalea ondo seinalizatuta egongo da eta autobusen geltokiak ere ohizkoak izango dira.

18 ASTEARTEA**ZINEA**

"Heroe por accidente" (7,9.30)

BILERA: ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA

Eskola publikoaren legeari buruzko bilera informatiboa. Arratsaldeko 6etan. Gazte-luondoko Batzar Aretoan.

HITZALDIA: IKUSPEGIAK ZABALTZEKO PROIEKTU BAT

"Ikuspegiak zabaltzeko proiektu bat" izeneko hitzaldia. Emalea: Jose Luis Berroondo, A.P. Amortiguadores enpresako zuzendaria. Arratsaldeko 18.45etan.

HITZALDIA: ZER ARI DA GERTATZEN BOSNIAN?

"Arrasatear baten esperientziak" izeneko hitzaldia. Emalea: Juan Luis Esperasate. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Arrasateko Talde Antimilitaristak eta Komite Internazionalistak antolatuta.

IBILALDIRA AUTOBUSAK

Datorren maiatzaren 23an ospatuko den Ibilaldia 93 jairara joateko autobusak antolatuta dira. AED Elkarteak antolatuta ditu eta interesatuok AED, HIRE eta Ilurriotz tabernatik pasatu aitezke. Izena emateko eta txartela erosteko azken eguna maiatzaren 21a izango da. Prezioa: 750 PTA.

19 ASTEAZKENA**BILERA: ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA**

Eskola publikoaren legeari buruzko bilera informatiboa. Arratsaldeko 6etan. Jokin Zaitegi Ikastola berrian.

HITZALDIA: ZER ARI DA GERTATZEN BOSNIAN?

"Nola lagundu dezakegu?" izeneko hitzaldia. Emalea: Bosnian laguntzen egon den arrasatear bat. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Arrasateko Antimilitaristak eta Komite Internazionalistak antolatuta.

HITZALDIA: IKASTOLAK ERABAKI BEHARREAN

"Ikastolak erabaki beharrean" izeneko hitzaldia. Emalea: Antton Azkargorta eta losune Igoa. Arratsaldeko 7etan. Arrasateko Udaletxeko pleno-Aretoan. AEDk antolatuta.

**EDADETUENTZAKO KIROL JAIA**

Bihar, maiatzak 15 edadetuentzako II. kirol jaia ospatuko da. Deba Garaiko edadetu interesatu guztiak har dezake parte jaian eta egitarauaren barruan, arratsaldeko 3etatik aurrera hainbat ekintza izango dira: badminton-a, boleibola, pilota, herri kirolak, frontenisa, trebetasun zirkuitoak, diaboloa, golf... Horretaz gain, mahai jokoetan parte hartzeko aukera ere egongo da: tute, mus, partxis, briska eta abar. Ekintza hauek bukatu eta gero, 5.30etan opari banaketa, luntxa eta dantzaldia ere egongo dira, arratsaldeko 7ak bitartean.

20 OSTEGUNA**ZINEA**

"Dobles parejas" (7,9.30)

HITZALDIA: ZER ARI DA GERTATZEN BOSNIAN?

"Jugoslavia: atzo eta gaur" izeneko hitzaldia. Emalea: Mikel Larraz kazetaria. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Arrasateko Talde Antimilitaristak eta Komite Internazionalistak antolatuta.

HITZALDIA: BURUKO EZINTASUNA

"Buruko ezintasunetako beharra eta baliabideak" izeneko hitzaldia. Hizlariak: Jose Luis Basoko, Atsegiko Gerentea. Arratsaldeko 7etan. Udaletxean. SUDCEk antolatuta.

“Hauteskunde garaian gaude eta alderdi politikoez intsumituez baliatzea erabaki dute, arazo larria ezin baita izkutu. (...) Hilabete gutxi barru Iruñeko espetxea armadari uko egin dioten gaztez beteta egongo da, eta Basauri zein Martutene antzera egoteko bidean daude. Konponbidea denon baitan dago eta hauteskundeak bertan daudenez, batzuk aipatu ere egingo dute. Baina promesak egintzatan islatu behar dira, eta berehala, bestela etxean dagoen leherkariak eztanda egingo du”.

Bego Zubiak 93-5-6

egin

“Arrasateko hitzarmen hau aintzindaritzan moduko zerbait izatera iritsi liteke, herri-ekimen eta erakundeen arteko lankidetzan honetan, eta halaxe gertatu da. Arrasatearrek bidea irekitzen eta aurreratzen jakin izan dute, eta gaur egun Euskal Herrian leku askotan erreferentzi puntu bihurtu da”.

Mari Karmen Garmendiak 93-5-5ean Donostian

“Espetxeak, preso gizonezkoentzat eginda daude, eta horregatik, emakumeentzako moduluak azkena eta ahaztuena izaten da. Inondik ere eta inolako arrazoiengatik ere ezin dute gizakume eta emakume presoek lokal edo iharduerarik konpartitu, eta horrela, emakume presoek ez dugu kiroldegira, liburutegira, zinera eta ezertara joaterik, eta ekonomatoa bera ere gizakumeentzat dago prestatuta. (...) Emakumezko presoan artean ez dago solidaritaterik, eta kasurik gehienetan gizarteko klaserik marginalenetakoak direnez, emakumea edozein gizonezkoren eskubide berberak dituen izaki bat den kontzientziarik ere ez dago kolektibo honetan”.

Kristina Zeziagak martxoa-apirileko Senideon ahotsa



Zer erabaki gomendatzen die Ikastolen Elkarteak gurasoei?

Ikastolen Elkarteak aipatzen dugunean, ikastola guztien Arabako Armentian duela bi aste bilduta egon ginenean lortu genuen erabakia aipatu beharko genuke, eta hori bera da Federazioak berak gero gomendatzen duena.

Kontuan hartu ditugu zenbait gauza. Batetik, ikastolen kolektiboak, behintzat Armentian bildu ziren ikastolen kolektiboak, municipalizazioaren aldeko apustua egin zuela, eta bide hori oraingoz ezinezkoa dela eta itxita dagoela. Bestetik, lege berriek eskaintzen duten eskolaren markoa, langileen lan baldintzak eta ikastolek izango dituzten kuotak, egoera ekonomikoa eta gainerakoa ere aztertu ditugu. Hori kontuan hartuta, esango nuke pribatu aldera jotzea adierazten duela batez ere Ikastolen Elkarteak. Negoziazioak une honetan momentu onean daude, esango genuke dirudienez amaiera aldean daudela. Egia esan, aspaldiko negoziaketak izan dira, azkenengo bi hilabateetan intentsifikatu egin direnak. Gure aldetik, eta baita Hezkuntza Sailaren aldetik ere, beraien nahimenez ere, nahi dute negoziaketak aste honetan bertan bukatu daitezzen.

Laster jakingo dugu, beraz, ikastola bakoitzak zein baldintza konkretu izango dituen aukera egin eta gerorako. Laster jakingo dute hau bai sare publikoan integratzeko gogoia daukaten ikastolek eta bai sare pribatuan jarraitzeko edo integratzeko gogoia dauketenek.



Santos Sarasola,
Ikastolen Elkarteak eta Donostiako Sto. Tomas Lizeoko zuzendaria



URONDO


elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Zabarte ezkutuan Puertora

Jesus Mari Zabarte preso arrasatearra maiatzaren 4ean aterata zuten Kanarietako Salto del Negro-ko espetxetik eta Puerto de Santa Mariara (Cadiz) eramana zuten. Trasladoaren berri aste honetan, hilak 11, jakin ahal izan zuen bere familiarak, astebetzez Zabarte "desagertuta" zegoela besterik ez zuten lortu jakiterik. Trasladoa, gainera, Zabarte oso egoera kaskarrean zegoela izan zen, lau egun lehenago utzi baitzion gose greba egiteari.



Gabonetako argien inguruko eztabaida

Gabonetan kale argiztapena jartzeko emendakina ere aurkeztu zuen joan den ostiraleko plenoan EAJk, eta honek ere aurrera egin zuen PSEren botoekin. 3.000.000 PTAko dirukontua gordeko da gabonetarako, beraz, hiri erdialdean jartzeko argiak, ez auzo urrunagoetan. Puntu honen eztabaidan, Jose Mari Loiti EAJko zinegotziak iraintzat hartu zituen Juan Jose Saenz HBkoak eta Pedro Mari Ruiz de Azua EAKoak iniziatiba hau zela eta jeltzaleei esandakoak. Saenzek EAJren jarrera "merkatarari feniziarrena" zela esan zuen eta Ruiz de Azuaren ustez, diru murrizketen garaian argietan 3 milioi inbertitzea "farolada" hutsa zen. PSEk emendakinaren alde egin zuen, nahiz eta erdiko auzoetatik kanpo ez den kalerik argizatutako, "jendeak halako argiak gogoko dituelako".

Aurrekontua onartu da

Ostiraleko plenoan onartu ziren 1993rako udal aurrekontuak. Emendakinen ondorioz, gorabeherak izan ziren aurreproiektuan, eta Arrasate Press-ek argitaratutako zirriborroan zuzendu egin behar dira. Euskaltegien jardueran, EAJk aurkeztutako mozioa onartu zen, PSEren aldeko botoaz, AEKrentzako dirulaguntza iaz jaso zuenaren kopuru berean geratuko da (2.974.960 PTA), 4 milioira igo barik. EAJk aurkeztutako beste emendakin batek ere modu berean egin zuen aurrera, eta horregatik udalak ez du Egunkariaren akziorik erosiko (500.000 PTA). Aldaketak egin eta gero, bozketan, HB, EAJ eta EAK eman zuten aurrekontuen aldeko botoa eta PSEk aurkakoa.

Atzera botatako emendakinak

Aurrekontuen plenoan atzera botatako emendakinen artean, HBkoa (Parrokiaren konponketan 28 milioi ez gastatzea) eta PSEren 3ak zeuden. PSEkexu zen auzoetako batzordean diru-banaketaz, eta hori aldatzea eskatzen zuen. Zerbaki eztabaida egin zen, baina beste alderdi guztiek atzera bota zuten emendakin hau, eta baita San Andresen zahar-egoitza bat sortzea eskatzen zuena. Beste emendakina, ARRASATE

TE PRESS eta ATBn erdara sartzearen aldekoa zen, "herriaren gehiengoak ez duelako ulertzen euskara, eta eskubidea duelako zer gertatzen den jakiteko", Paco Garcia PSEko zinegotziak esan zuenez. Xabier Zubizarreta alketeak erantzun zionez, bi komunikabideon helburu nagusia euskarak bizi duen egoera diglosikoa orekatzea da, eta horregatik ez du zentzurik erdara sartzeak. Bozketan, atzera bota zen emendakina, HB eta EAren botoekin. EAJ abstenitu egin zen.

Intsumisioaren alde

Ostiralean intsumisioaren aldeko manifestaldia egin zen. 22 intsumisio daude preso Hego Euskal Herrian, gehienak Nafarroan. Irailean Gipuzkoan hasiko dira epaiketak, eta Deba Garaiko 20 bat intsumisio deitu ditzakete.

DYA eta Gurutze Gorria

Errepideetan laguntzen duen DYA erakundea ez dago ados Jaurilaritzaren plan berriekin. Horien arabera, Deba Garaian, Gurutze Gorria martxan geratuko litzateke, eta Antzuolan DYAk daukan beste anbulantziak ez luke erabilpenik. DYAre ustez, zerbitzu murrizketa arrisku-tsua da hau.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Nerea Bostiago Romero, 21ean. • Maider Letona Eriz, 26an. • Unai Uribarren Amozarain, 26an. • Iban Fernandez Gala, 26an. • Eneida Felix Diez, 28an. • Iker Manjon Tellez, 30ean. • Nerea Otxoa Guridi, 1ean • Josu Basterra Barrutia, 4ean • Maialen Axpe Echave, 4ean • Ane Lopez Agudo, 2an • Josu Rodriguez Sanchez, 2an
EZKONTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Bernardo Gonzalez & Francia Rosa Mora, 30ean. Zibilez. • Francisco Jabier Oruna & Marisol Gonzalez, 30ean. Zibilez.
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Justo Izar Ugarte, 28an, 83 urte. • Crispin Altube, 29an, 42 urte. • Agustina Mendiola, 29an, 70 urte. • Sabina Riviere, 1ean, 91 urte. • Teresa Ibarquen, 5ean, 95 urte. • Luis Etxano MEa, 7an, 66 urte • Margarita Aspiroz, 9an, 89 urte. • Cipriana Salpico, 9an, 78 urte. • Frantzisko Arrizabalaga, 5ean, 76 urte

comercial
san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4

Tfnoa: 79 13 84

Garibai, 12

Tfnoa: 79 13 05

ZARRAOA

EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



ANDONI URZELAI *

Kontzientzia eragozpenaren eguna

Ba zan behin "demokratiko" omen zan Estatu, hainbat miloitatako biztanle kopurua zuen estatu honek, eta legez berdintsuak omen ziren guztiak; eskubide berekin, eginbehar antzekoekin. Estatuak, biztanleongizatea eta behar adinako nahiak betetzea zuen helburu, ahalik eta gizarte zoriontsu eta justuena eraikitzearen bidean.

Baina gainontzeko estatu gehienentsuenen moduan, porrot egin zuten asmoek. Gutxi batzuen menpeko gizarte injustua eraiki zuten boteredunek; zenbaitzuen aberastasuna gainontzeko guztien pobretasunean oinarritutako gizarte absurdoa (batzuen boterea, besteen zapalkuntza), hain zuzen. Ejerzitoak eraiki zituzten orduan, horen balantza desegokiaren esistentzia garantizatu zezan eta sistima honen aldeko jarrera hartzerantz behar gintuzten guztiok, Estatu

"demokratikoa" eta honen baloreen defentsan.

Ezetz esan zioten gutxi batzuk orduan, ejerzitoari uko eginez. Ezetz beste askok geroago, gizarte beste modu batera antolatzearen beharra aldarrikatuz, eta ejerzito eta hauek zekarten diru gastu esageratuak ukatuz. Estatuak ez zien kasorik egin.

Egun, kontzientzia eragozle ugari daude gartzelatan.

.....

"Egun, kontzientzia eragozle ugari daude gartzelaratuak, beste asko epaiketaren zain..."

tuak, beste asko epaiketaren zain...

Nazioarteko kontzientzia Eragozpenaren nazioarteko eguna den honek, parabola pikutara bidaltzeko balio izan behar du.

Intsumisioa apostu konprometitua da duda barrik. Eskeintzen zaigun gizarte mota bati ezetz esaten dion postura aktiboa. Ezetz ejerzitoari, ezetz militarismo eta honen orbitako "ismo" guztiak.

Zentzu honetan beraz, guztiok behar dugu izan intsumisio; desobediencia zibilak desarmatuko ditu eta koarteletan atrintxeratu-takoen arrazoia.

Hilaren 15ean, ezetz esango diegu oster militarrei. Ez dago intsumisioa geldiaraziko duen ejerzitorik.

* ARRASATEKO TALDE ANTIMILITARISTAKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

ZIRKOA

Hasi dira zirko topaketak. Denetarik daukagu, ezin gara kexatu. Zirko guztietan bezala, akrobatak: inork ezer ulertu ez dezan lengoaiarekin egiten dituzten akrobaziak benetan ikusgarriak dira! Badauzkagu magoak ere: ez, ez dute untxirik ateratzen kapeletatik, gizarteko arazo guztietzat (krisi ekonomikoa, langabezia...) konponbideak baizik! Eta animaliak ere, noski, ez dira falta. Baina orain arte behintzat ez dut ikusi elefanterik, ez eta lehoirik, edota zaldirik. Zein animalia moeta daude orduan? Bakoi-tzak asma dezala zein den zirko baten inoiz falta ez den animalia. Eta azkenik zirko guztietako protagonista nagusiak: pailazoak. Euren emanaldiak ondo prestatuta, batak besteari intsultuak botatzen, tontoa beste dela eta ez norbera frogatu nahian. Barregarria! Benetan ikustekoa bada, ekainaren 6a arte egunero emango digutela espektakulua. Akats bat: muntaia oso garestia da, eta gastatzen den dirutza hobeto erabilia izan zitekeen.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Umeak dira euskaraz kalean gehien egiten dutenak (% 36,7).

Euskara gorantz ari da kalean: %25eko erabilpena

Udaleko euskara zerbitzuak urtero egiten duen euskararen kale-erabileraren neurketak datu on eta harrigarria eman du aurten: kalean hartutako berriketaldietatik, % 25 euskaraz dira. Urterik urte garapena ikusita du balioa datuak: 1988an % 11,6 izan zen emaitza; 1990ean, % 14,3, eta iaz, % 18,78.

Sondeo hau ez da inkesta bat, bikoteka egin da lana eta kalean jendea euskaraz ala erdaraz ari zen markatu besterik ez dute egin inkestatzailerek. Adibidez, bost lagun bazeuden elkarrekin, eta bat erdaraz, bostak "erdaraz" markatuta geratzen ziren. Inkesta, adin taldeka eta auzoka egin da, eta baita herriko toki publiko ezagunenak kontuan hartuta ere. Alor bakoitzeko datuen konparaketa egi-

nez, urtetik urtera gorabehera batzuk daude, baina emaitza orokorra duda barik goranzkoa izanik, datu horrek du garrantzia gehien.

Adin taldeka, hurrengan igerri da gorakada nabarmenena (% 36,7 euskaraz). Zaharrak daude gero (% 29,2), gazteak (% 22,5) eta helduak azkenik (% 21,5). Auzoka, Urribarrin entzuten da euskara gehien (% 36,9), Erdialdean ondoren (% 31,5) eta San Andres eta Santamainan gero (% 9,3 eta % 10).

Matematika gainditzen

Arrasaten, euskaraz dakitenak eta ez dakitenak berdinduta egonik, teoria matematikoz, bizilagunen arteko hizketaldi posible guztiak gertatuz gero, %15 bakarrik izango lirarteke euskaraz.

Nola gainditu da, baina, matematika? Badaude arazoak. Bata, badirudi euskaldunak aiseago ibiltzen direla kale eta leku publikoetan, 'kalezaleagoak' direla. Gero, antzaenez, euskaldunek berriketaldi gehiago izaten dituzte elkarrekin, erdaldunekin baino. Eta, azkenik, Xabier Isasi Balanzategi EHUKo irakasleak bere lan batean dioen bezala, "euskaldunen arteko hizkuntz-harremanak uste baino hestuagoak dira". Udalak laster emango ditu argitara inkestako datu guztiak, baina aurrerakina publiko egin zuen joan den astean Xabier Zubizarreta alkateak, Hitzarmentaren luzapena iragaritzeko ekitaldian.

Ikastoletan biltzarrak

Ikastolek hurbilago dute hezkuntzako sare publikoaren edo sare pribatuaren artean erabaki beharra. San Frantzisko Xabier ikastolak bilera informatiboak antolatu ditu datorren asterako erabaki definitoa hartzeko konbokatutako den Batzar Nagusia prestatzeko. Bilerak hauek dira: Musakolako San Antolin ikastolan astelehenean. Erdialdeko Gazteluondoko batzar aretoan, asteartean, eta Urribarri auzoan Jokin Zaitegi ikastolan asteazkenean. Hiru kasuetan arratsaldeko 6etan.

Batzar Nagusiak ere data du azkenik, maiatzaren 24ean izango da. San Viator ikastolak ere batzarrera deitu ditu gurasoak. Kasu honetan astelehenean izango da, 6.30etan.

Bosniarrentzat laguntza

'Deba Garaia Bosniarekin bat' taldea bosniarrentzat udako erropa jasotzen ari da. Lagundu nahi duenak Eskoriatzako San Viator etxean eta Aretxabaletako jubilatutako egoitzan utzi erropak. Baina, neurri jakinak eskatzen dituzte. Alkandorak: gizonezkoak (39-42-48), andrazkoak (40-42-44-46-48), umeak (16, neska eta mutilentzat). Oinetakoak: andrazkoak (36-37-39-40), gizonezkoak (41-42-45), neska-mutilak (36-37). Praxak: andrazkoak (38-42-44-48), gizonezkoak (50-52-54-55), neskatoak (14-16), mutikoak (16).



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDAK

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Kartel eta pintada araudiari alegazio ugari

Kartel eta pintaden gaineko araudiari alegazioak aurkeztu dizkiote hainbat taldek. Otsailean onartu zen araudia EAJ eta PSEren botoez, eta pankarta, kartel eta pintadak debekatzen ditu, hauteskunde garaian izan ezik, eta egitekotan, diru fiantza jarri behar da udaletxean aurretik. Gainera, udalak eman behar du baimena pankarta bakoitzaren kasuan. Araudi hau Euskal Udalen Elkarrekin (Eudelek) onartutakoa da. Araudia ez betetzekotan isunak egongo lirarteke, eta alderdi politikoaren kasuan, udal-aporazioetatik egingo litzateke mozketak.

Orain, alegazioak aurkeztu dira, eta horien artean EAJk berak aurkeztu du bat, araudia nolabait biguntzeko. Pintadak debekatzeko proposatzen du EAJk orain, baina kartelak



Oraingo hauteskunde kanpainan ez da arau berezirik izango.

baimentzea horretarako jarri beharko diren panel apropos batzuetan eta obretako balle-tan. Isunen kasuan ez du zehazten kopururik, hori udal plenoan markatu beharko dela baizik.

Beste alegazio askok araudia oso-osorik atzera botatzea

eskatzen dute, adierazpen askatasunaren aurkakoa delakoan. Hauen artean daude, HB, Askapena, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, LAB eta Askapenak. Zerbitzu batzordeko buruak, Pedro Mari Ruiz de Azuak (EA) alegazio bat aurkeztu

du araudiaren legezotasuna zalantzan jarriz. Ruiz de Azuak Erreterian HBk aurkeztutako alegazioa hartu du oinarritzat: bertan zehazten denez, inkonstituzionala ere izan daiteke Eudel-en araudia, ez baita Espainiako inongo legetan oinarritzen eta zentsura elementuak sartzen dituelako (pankarten testua alkateari erakutsi beharra, honek horren arabera erabaki dezan).

EA-EUE koalizioak ere alegazio bat aurkeztu du, kartelak jartzeko panelak jar daitezela eskatuz.

Otsaileko plenoan, alegazio honen testuaren alde azaldu ziren hainbat talde. Oraingoz, alegazioak estudiatzeko garaia ireki da udaletxean. Bitartean, hauteskunde kanpainan ez da arau berezirik indarrean izango.

▪ Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara ▪

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa 1993-1994 Ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI. Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika, frantsesa, kultura klasikoa
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
 - A. Zientzia arloa
 - B. Letra arloa
 - C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.: A. Zientzia-teknologia arloa
 - B. Arlo biosanitarioa
 - C. Giza-arloa
 - D. Linguistika arloa

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 13tik 31ra

Tfnoa: 79 44 47-37

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia. Kabinete psikopedagogikoa.

MATRIKULA DOHAINIK



Supermerkatu edo distribuzio arloa izango da aurrerantzean garrantzitsuen MCCn.

MCCk 1996rako irabaziak bikoiztea du helburu

Mondragon Kooperatiba Korporazioak (MCC) 850.000 milioi PTako fakturazioa lortu nahi du 1996. urterako, eta langile kopurua 33.600 izatea espero du. Helburu hau dauka markatuta MCCk, eta hala aurkeztuko zaie kooperatibei uztailan egingo den IV Biltzar Kooperatiboan. Zenbaki horiek gauzatuz gero, Mondragon taldea estatu espainiarreko 6. enpresa litzateke garrantziz.

Aurten, aurrikusitako fakturazioa 400.000 milioioa da, eta langileak 26.800 dira. 1996an, MCCren arabera, areagotu egingo da distribuzio sektorearen garrantzia (Eroski eta Max Center), arlo industrialarekin alderatuz. Supermerkatuen irabaziek osatuko dute fakturazio osoaren %70a. Era berean, MCCk kooperatiben artean eraturako Elkarkooperaziorako Fondo Zentrala indartuko du. Koope-

ratibek etekinen %10a utziko dute Fondoan, inbertsioetan eta larri dabilzan enpresetan erabiltzeko.

Bestetik, aste honetan hasi da Max Center kasuko epaiketa Barakaldon. Zentro hau eraikitzeko erraztasunak ematearren, ustez sobornoak eskatu zizkioten MCCri Barakaldoko EAJ eta PSEko zinegotziek. MCCk kasua salatu ondoren piztu zen eskandalua eta orain da epaiketa.

Jaietarako oharra

San Juan jaiak hurrago daudela eta, Udalak dei egiten die soldadutzan laguna edo senidea daukaten guztiei, haren koarteleko dagokion ofizialaren izen eta helbidea emateko udaletxean. Era horretan, udaletik jaiak herrian pasatzeko baimena eskatuko da koartelera. Era berean, San Juan egunean, Udalak herriko pertsona nagusiak (80 urtetik gorakoak) omenduko ditu. Omenaldirako izena emateko, DNI edo Nortasun Agiria eroan udaletxera. Bi kasuetan, ekainaren 16a baino lehenago, Idazkaritzan.

Uherkapeko hormako proiektua

Uherkapeko horma egiteko eraikuntza proiektu zehaztua aste honetan jaso du Udalak. Mendiari eusteko hormak 250 milioi PTatik gorako aurrekontua izango luke. Laster auzia tratatzeko pleno berezia egingo da, maiatz amaieran seguruenik, Uherkapeko etxeak erosi dituztenek eskatu duten bezala.

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**



zortzi

Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

HORTZ KLINIKA

ESPEZIALITATE GUZTIAK
PABLO MARMOL MASTRTANGELO Dr.
MARISA PORTA PEÑA Dr.
GABRIELA PORTA PEÑA Dr.

Simon Arrieta Plaza, 3 -2º
76 38 54
BERGARA

Iturriotz, 7 bis behea
79 73 88
ARRASATE




Pasa den ostiralean burutu zen elkarte arteko mus txapelketa finala. Aurrez aurre Torrepe eta Leintz aritu ziren, baina azkenean torrepe nagusitu zen: 16-12.




Gipuzkoako Gizarte eta Famili Heziketarako Zentruak 25 urte bete dituzte. Donostiako aurkezpenean, herri desberdinetako ordezkariak bildu ziren. Balantze ona egin zen, eta geroari begira, lanean jarraitzeko asmoa, noski. Gaur ostirala, Arrasaten egin dute aurkezpena.

Pasa den igandean Senperen ospatu zen Herri Urrats jaira hainbat arrasatear hurbildu zen. Autobusak ere bete beteta joan ziren eta eguraldi onarekin inoiz baino jende gehiago bildu zela komentatu digute bertan egon zirenak. Animatu hurrengoan ere!




San Juanetako jaiak datorren hilean ospatuko ditugu baina prestakuntzak hasi dira. Astelehenan hasi dituzte tanborradako entsaiuak txikienek. Ume ugari bildu da, batzuk beste urte batzutatik praktika pixka bat badutenak, beste batzuk tanborrari lehen golpeak eman dizkiotenenak. Animo, oraindik hilabete duzue eta!



Alfonso Gorroñoigoita, Arrasateko kooperatiben kudeatzailea, Cordobako Montilla herrian Arrasateko kooperatibei buruzko hitzaldi sorta bat eman du pasa den aste honetan, Arrasateko Al Andalus taldea bitartekari zela. Munduko kooperatiba talderik handienaren funtzionamendua azaltzea izan da helburua.

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

PUB HAIZEA



IZEN PROPIOAK



Umezaintzako 5-6 urteko umeak Udala-
ren funtzionamendua eta antolakuntza
ikasten ari dira. Hori dela eta, asteazke-

nean Udaletxea marraztu zuten Herriko
Plazatik. Ondoren, barruko funtzionamen-
dua ezagutzeko aukera ere eduki zuten.

● **Torrepe** elkarteko
Jose Luis Azpeitia,
Sebastian Arejolalei-
bar, Meltxor Murillo eta
Bixente Heriz arrasatea-
rrak izan dira elkarte arteko
mus txapelketako irabaz-
leak.

● **Felix Ayala** arrasatea-
rra, "Feliko", saskibalioko
lehendakari da berria. Jose
Mari Balanzategik karguari
utzi egin dio eta bere postua
Felixek beteko du. Orain
arte Zuzendaritza batzorde-
ko partaidea izan da,
gurasoen ordezkari gisa.

Pedro Mari Ruiz de
Azua, 34 urteko arrasatea-
rra eta EAko zinegotzia
izango da Iturriotz kaleko
Lankide Aurrezkiaren
zuzendaria berria. Orain
arte, Fagorreko Fabrikazio
sailean aritu da.



Jai Zale elkarteak
urtebete bete du aste
honetan. Hori ospatze-
ko, ekitaldi berezia

antolatu zuten pasa
den larunbatean. Ekital-
diaren barruan, Pitxo-
nes taldearen emanal-

dia izan zen. Urtebe-
tetzea ezin hobeto
ospatu zuten. Zorio-
nak!



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

"MULTISOLEKIN, ZU ERE MODAN JARRIKO ZARA"



**GAINERA KAMISETA BAT
OPARITZEN DIZUEGU**

Ez zaitetz itzalean geratu! Jar ezazu zure begirada modan. Ezagutu itzazu MULTIOPTICASen Multisol diseinu berriak. Ausartak, egun-egungoak, erakargarriak... baita beren prezioa ere: 1.500 Pta. Multisolekin, zu ere modan jarriko zara. Begira, begiral! Eta orain, Multisolak erostean, pin bilduma bat oparituko dizugu.

Jesús Vázquez



J. Larrañaga
OPTIKA

MULTIOPTICAS

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

1.500 pta. n

ETEO

ENPRESA-IKASKETETAKO UNIBERTSITATE ESKOLA (OÑATI)
LANBIDE HEZIKETAKO ESKUALDEKO ZENTRUA

1993-94 IKASTURTEA

UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA

- ENPRESA ZIENTZIAN DIPLOMATUA (3 IKASTURTE)
 - Finantzetako Espezialitatea
 - Marketing Espezialitatea
 - Enpresako Informatika Espezialitatea

**Izenemate epea:
maiatzaren 24tik
ekainaren 25era**


INFORMAZIOA:
ETEO San Lorentzo Auzoa z/g
20.560 OÑATI
Tfnoa: 78 13 11 - 78 12 51

IRAKASKUNTZA ERTAINAK

- BATXILERGO-TEKNIKO ADMINISTRATIBOA
 - REM 2. Zikloa, A eta D Ereduak (2 Ikasturte)
- ENPRESA TEKNIKARIAK
 - Kontabilitateko Espezialitatea
 - Gestioko Informatika Espezialitatea
 - Marketing Espezialitatea
- III MAILAKO MODULO PROFESIONALA:
GESTIOKO PROGRAMATZAILEA

**Izenemate epea:
maiatzaren 13tik
ekainaren 28ra**

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Apusturik bai?

Zuek aukeratu: Zuloak, Trikiti, Leniz eta Argi Ibili. Nork eramango du txapela?

Pasa den asteburua emozioz blai joan zitzaigun, batez ere larunbateko ihardunaldian.

Zuloak 1, Suministros 1. Polemika eta guzti izan genuen partidu honetan. Azken minutuan, Suministrosek bi eta hutsekoa lortzeko aukera paregabea eduki zuten. Epaileak penalty argia seinalatu ez, eta kontraerasoan Zuloakek berdinketa sartu zuten.

Penaltyetan Zuloak nagusi.

Trikiti 6, Mikelos 3. Baina ez pentsa,

garaipen erraza izan zenik. Markagailuan hiru hiru berdinketa ikusi genuen. Une erabakiorretan, ordea, edo Trikiti oso ondo edo Mikelos flojo xamar. Batek daki.

Lenitz 4, Adelaida 0. Kolorerik ere ez. Lenitzek ederto asmatu zituen bere aukerak. Orain dela bi urteko txapeldu-nak, berriz, despistatuta. Kontuak kontu, markagailu esanguratsua.

Argi Ibili 8, Zizti Zazta 3. Atsedunaldian bi eta huts Argi Ibiliren alde. Bigarren zatia hasi bezain laster, berdinketa. Hortik aurrera iazko txapeldunek azeleradorea zapaldu eta...

**NUEVO
taberna**

Bañez Doktoera, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE

 **DEBA
GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

Final laurdenetan Kanporatuak



SUMINISTROS INDUSTRIALES UGARTE.

Zutik: Endika, Juan, Juanmi, eta Enrike.
Makurtuta: Arturo, Javi, Jon eta Txomin



MIKELOS.

Zutik: Alberto, Trus, Jose, Aure, Tolo eta Intxausti.
Makurtuta: Roberto, Kabero, Sebe, Pibe eta Ander.



ADELAIDA.

Zutik: Txiu, Alfonso, Sebas eta Zurdito.
Makurtuta: Jabi, Joseba, Juanjo eta Santi.



ZISTI ZASTA

Zutik: Ito, Mendo, Xabin, Etxebe eta Porru.
Makurtuta: Aitor, Kalbo, Twins eta Bastargain.

ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04

AMAJUR
taberna
EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK
Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

Bodisca s.l.
Zeramikako pabimentu eta
gaineztaldurak
Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Downen semeak

Jakingo bazenu, irakurle, nola ematen duten muxu neska-mutiko haundikote hauek, paaa... muxu bero-beroak, benetazkoak. Gizaki aurrerratuok ustelkeriatan galtzen garen bitartean.

Jakingo bazenu ze egun handia izan ohi den ostirala GUREAK tailarrean... ostiralean, bazkalostean, sobrea ematen dietelako, eta sobreak asteko soldata. Barruan 3.000, 6.000, 9.000

PTA... baina ez gero eurei esplikatzeko hasi hori diru gutxi dela. Dirua gizaki aurrerratuon mixeria baita, eta ez laguntxo hauena.

Jakingo bazenu ze sakratua den bazkalordua, mahaian esertzen direnean erakusten duten sake itzela...

Ez dakite zer den hipokresia, aurrerratuontzako lege. Begi berezi horien ostean egia ezkututzen da, ez dago gezurrik, ia ez dago maliziarik...

Atzeratuak direla diote.

Baina galdera bat, irakurle:

Atzeratuak... nortzuk?



Atzeratuak?

Unibertso ezezagun eta garbia, besterik ez

✓ **GUREAK** 1975ean jaio zen, Gipuzkoako Atzeratuen Elkar-teak eta Donostiako Kutxak bul-tzatuta. GUREAKek 1990eko San Juanetan zabaldu zuen Arrasateko tailerra, eta urte bereko irailan lanean hasi.

Gauregun lau enkargatu, eta 43 langile aritzen dira bertan: Oñatiko 18, Arrasateko 17, 7 Eskoriatzakoak, eta Bergarako bat.

Bakoitzari, bere kapazitatearen neurrian ematen zaizkio bete-beharrak.

Batez ere enbalajea lantzen dute (jaboia, tornilloak edota giltzak enpaketatuta). Horrez gain, zerradurak eta osagai elektronikoak ere egiten dituzte Mondragoeko tailerrean.

ZAILA da jakitea zer pasatzen den atzeratu baten burutik, noraino interpretatzen duten gizartearen planteamentua.

Ikusi ikusten dute, ordea, euren inguruan bizi diren guztiak goizero altxatzen direla lanera joateko. Horregatik, sekulako garrantzia dauka eurei ere aukera bera emateak. Ez dute diruagatik egiten, lan hori euren bizitzaren justifikazio bihurtzen da. Aupa GUREAK.



✓ **JMA**, Ceventor, MCM eta Fagor dira Arrasateko GUREAK tailarrearen kliente onenak. Subkontratutako enkarguak egiten dituzte, eta aurten iazko produkzio-kopurua gainditu egin dute. Nahiko lukete beste enpresa batzuk!

Benetan txalotzekoa da gainera JMA enpresaren filosofia.

GUREAKi lana emateaz gain, azken urte hauetan bederatzita langile atzeratu sartu ditu plantilan normaltasun osoz.

Langile finak. Irteteko ordua iristean, ez dira inoiz ospa egiten duten lehenengoak izaten.

Bidea hasita dago, eta integrazioaren apustua irabazi behar dugu. JMA eredu.



Gure Jesus Mari Beethoven-en seme kuttunena

JESUS Mari Martinez, betidanik alaia eta ipurdi-beroa. Arrasaten, nork ez du ezagutzen?

Jesus Mariren zaletasun haundiena musika da. Beethoven semeak taldeko zuzendari mitikoa, sekulako estiloa dauka gainera. Hain da ona ze, Juanito Arzamendik behin egurrezko batuta bat oparitu zion. Zapatuero bere batuta hartu eta ezkontzaren baten bila abiatzen zen, Hostalera, Urizarrera... Behin Aretxabaletaraino joan zen, eta bertan lagun batek pista eman, igotzeko Venta Friara, han ezkontza bat zegoela eta. Jesus Mari taxia bilatu, eta "Llévame a Montefrío", eskatu zuen. Behin Gatzagainera iritsi eta gero, eskerrak eman, taxista agurtu, jeitsi, eta ezkontzara sartu zen sano-sano. Taxia pagatzea ahaztu omen zitzaion.

Bere bigarren zaletasuna, futbola. Zaldibarreko txapelketan entrenatzaile eta guzti aritu zen. Oraindik kiroldegira joaten da astelehenero, lagunarteko partidu bat arbitratzera. Ez pentsa, gainera, nolanhiko epailea denik: bere garaian Urio Velazquezek oparitutako traje ofiziala eramaten du jantzita, txartelak eta guzti!

Mondrazale eta Errealzale amorratua, nahiz eta donostiarren partiduak telebistaz bota, nahiago du irratia. Entzun bakarrik ez, Jesus Mari irratian partiduak ikusi egiten ditu! Koaderno hartu, "Voy a ver el partido" esan, eta hor joaten da irratiarekin. Koadernoan dena apuntatzen du, sekulako artxiboa omen dauka, Errealaren estadistika guztiak ondo jasota. Josean Alkortaren ondorengoa dugu gure Jesus Mari.

Etxean ikaragarri fina, asko gustatzen zaio bertako lanak egitea. Tailerlean ere bera da garbitasunaren arduraduna. Dena urrea letxe uzten du. "Mr. Proper" deitzen diote.

Martinez, Jesus Mari, 45 urte. Nork ez du maite?

Joxe Ramon Torrealdai

JOXE Ramoni emozio berezia igertzen zaio bere alaba nagusiari buruz hitzegiten duenean. Laura, 20 urte. Itxuraz normal jaio zen. Handik urtebetera gurasoak konturatu ziren Laurarako zituela, midikuek ez baitzuten tutik ere esaten. Neskatilak ez du hitzegiten, ez du atenditzen, eta mugitzeko arazoak dauzka.

Joxe Ramon eta bere emazteak, Mari Karmenek euren bizitzako erabakirik zailena hartu behar izan zuten orain dela 10 urte: Laura Donostiako San Pablo zentruan ingresatzea. "Zenbat negar egin genuen orduan emazteak eta biok... bizitza honetan, ordea, batzuetan erabakiak buruarekin hartu behar di-



ra, bihotzak esaten duena alde batera utzita".

Atzera begiratuta, eta alabarengatik sentitzen duen maitasunetik, gauzarik egokiena egin zutela sinisten du. "Agianguk ezin genuen behar bezala atenditu. Donostian, berriz, espezialistaz inguratuta dago, ederto zaintzen dute, eta nahiz eta zentru garestia izan, edozer egingo genuke berarengatik".

Etxean astebete pasa eta gero, Laura Donostian geratzen da hilabetea bukatu arte. "Pozik geratzen-

da, guk igerrri egiten diogu hori, bestela ez genuke inolaz ere han utziko".

Laurak ezin du hitzegi, baina bere aitak, Joxe Ramonek, ondotox daki neskatilari izugarri gustatzen zaiola kotxean ibiltzea. Laurak ezin du hitzegi, baina ze garrantzitsua diren detaile txiki guzti horiek, ezta Joxe Ramon? "Erakusten duen begirada, eskuekin txalo egiten duenean... berehala antzematzen diogu pozik dagoela, eta benetan, momentu zoragarriak dira horiek".

Lurdes Trojaola

LOURDESEN anaiak, Pedrok, Down sindromea dauka. Lourdesek segituan onartzen du mutikoa asko maite duela, bere debildadea. "Pedrok oso izakera alaia dauka, eta hain da maitakorra... segituan konkistatzen zaitu. Ikaragarri ordenatua da. Bere ilusioak? Bidaiatzea asko gustatzen zaio, baita telebistan kirolak ikustea ere. Baina berarentzat garrantzitsuenak utila dela sentitzea da".

Down neska-mutikoen hizkera propio bitxia edukitzen dute. "Bai, Pedrok ez du normal hitzegiten, bere hizkuntza sortu du, eta nik adibidez berarekin hizkuntza hori erabiltzeko joera hartua dut aspaldi, gustatu egiten zait eta ederto



ulertzen diogu elkarri?.

Familien jokaerari buruz galdetzerakoan, Lourdesek protekzionismoa azpimarratzen du. "Alde baretik normala da, hain dira onak... eta gizartearen aurkaren defentsarik gabe ikusten dituzu... baina hainbeste babes ematea ez da ona, anulatu egin ditzakezu".

Gizarteak ba ote duen pekatuak? "Orain arte etxean gordeta egon dira, baina zorionez hori aldatzen hasi da. Gizartearen pekatua? Ez dituela ezagutzen,

ez dituela pertsona bezala neurtzen... Subnormal hitza hain erraz erabiltzen den une beretik dena esanda dago. Gizarteak ezagutuko balitu, hain dira onak, alaiak... sentimentu garbi-koak, hipokresiarik gabe, maite dute jendea eta beraz ezin ditzakegu aldatu; alderantziz, euren gaitasun ikasi beharko genuke gure baloreak hobetzeko".

Hitz guztien gainetik, sentimentua nabari zaio Lourdesi: bere anaia Pedro miresten duen pertsona baten sentimentua.

Gizarte lokartua esnatzeko ordua



MARIXABEL

Neska-mutiko hauena oso mundu zabala da, Mota eta maila askotako gabeziak daude, eta, beraz, talde konplexua da.

Gizarteak, eta batez ere pertsona bakoitzak badauka gai honetan zer egin eta zer esan: Aldamenean daukazunari aukera eman, ateak zabaldu, ezagutu itzazu eta beraiengana hurbildu.

Atzean beti pertsona bat dagoela deskubrituko duzu. Atzean, beti pena merezi duen pertsona bat dagoela jakingo duzu.

Marixabel Isasmendi
ATZEGIko ordezkaria



JASO

Jendearen arreta izugarri gustatzen zaie, eta musikak adibidez, izugarri erakartzen ditu.

Noizean behin eurekin egotea gustatzen zait, uste baino gehiago apor-tatzen didatelako.

Batipat euren detaile txikiak azpimarratuko nituzke: ematen dituzten besarkadak, ematen dituzten musuak... benetazkoak dira, eta niri behintzat sekulako satisfakzioa ematen didate.

F. Javier Jaso
SUDC Batzordekoa



OLATZ

Atzeratuena ez da arazo pertsonala, gu guztio-na baizik.

Denok jarri dezakegu eta jarri behar dugu zerbait gure aldetik. Hasteko modurik onena eurengana hurbiltzea da, saiatzea, ezagutzea.

Arlo honetan, azken urteetan Erakundeak hasi dira mugitzen, gai honetaz kontzientziatu eta hasi dira gauzak hobeto egiten.

Argi dago, ordea, bidea hasi besterik ez dela egin, eta oraindik guztiok asko daukagula egiteko.

Olatz Etxabe
Gizarte Laguntzailea

Sub guztien azpitik eta super guztien gainetik besteren artean



UDABERRIA bete betean dugu eta urtero bezala, (maiatzaren 23an aurten) ospatuko dugu aurtengo jaia; musika, opariak, pailazoak eta jokuak izango ditugu.

Uste dut ondo merezita daukazuela jaiegun hori. Badakit batzuetan alperkeriatan eta haserretuta ere ibili izan zaretela, baina bueno, urte osoan lanean eta gauza pila bat ikasten ibili eta gero noski baietz.

Gogoratu ondo eguna eta inork ez dezala gero, griperik edo katarrorik harrapatu, bestela ezingo du joan eta.

Bueno, ez dizuet jardunik egin behar; baina gutuntxo hau aprobetxatu nahi nuke beste sujerentzia bat egiteko.

Iruditzen zait urtean behin bakarrik bazkari bat egitea gutxitxo dela. Hurrengo urtean gogoratu ere ez gara egiten aurrekoaz.


Zergaitik ez dugu pentsatzen lokalen bat aprobetxatuz, noizean behin, igande batzutan edo... elkarrekin jolas egin, musika entzun, pelikula bat ikusi etabar egitea.

Pentsatu egin behar dugu, eta zerbait asmatuko dugu, mundua borobila da eta. Besterik gabe, igandera arte.

Xabier Zubizarreta, Arrasateko Alkatea



Maitasuna Integratziora bidean



Miguel Angel edo lanaren garrantzia

Miguel Angel Ariznabarreta, 55eko abuztuan jaioa, Santa Marinarin bizi da. San Miguel Patronatoak Bergaran zeukan eskolan hasi, eta gero Bergarako tailerrean pasatu zen.

Abenduan lau urte beteko dira JMAn lan egiteari ekin zionetik. Grabatueta lehenik, astiladoratan orain, Miguel Angel oso pozik dago. "JMAn makina asko dago, eta hasieran kosta egin zitzaidan. Baina orain gustorago, erresponzabilitate handiagoa daukat. Horrez gain, lankideak izugarri majoak dira, eta Txatillo ere ezinhobeto portatzen da. Aste Santuan kristoren bazkaria ordaintzen digu plantilako guztioi".

Eta berriaren murgilduta, beraz, baina gustoz gogoratzen ditu Bergarako eskola eta tailerrean pasatako urteak. "Orduan asko bidaiatzen genuen, eskurtsio politak ziren. Edo olinpiadak antolatzen genituen gure artean, futbi-

toa eta guzti hori. Norbaiten urtebetetzea zenean pastelak eramaten ziren, oso tradizio polita".

Igandeak eta futbola, grina nagusia. "Ez daukat bizio txarrik, ez zaizkit taberna eta diskotekak gustatzen. Koadrilarekin toki horietara joan baino nahiago dut nire kasa ibili. Lehen domekero joaten nintzen Mondra ikustera, orain ez hainbeste".

Errealzale eta Mondrazale sutsua, pozik dago arrasatearren denboraldiarekin. "Mondra oso ondo ibili da. la igoera promozioan sartzen den, dirua atera eta kitto. Zertarako mailaz igo, aurten Elgoibar ibili den bezain makal ibiltzeko?". Miguel Angelen, txiki-txikitatik futbolearen txuridinen trajearekin aritu izan denaren aholkua da hori.

Zinean, tokatzen den pelikularekin konformatu behar. Telebistan berak nahi duena ikusteko mila eta bat komeria etxean. Beraz, bideoa du gogoko. "Zinea

□ Santa Marinarin bizi da, eta bertan dauka bere koadrila

□ Abenduan lau urte beteko dira JMAn lanean hasi zenetik

□ Gustoz gogoratzen ditu Bergarako eskola eta tailerrean pasatako urteak: orduko eskurtsioak, kirol txapelketak...

□ Nahiago du Mondrak mailaz ez igotzea. Total zertarako, aurten Elgoibar ibili den bezain makal ibiltzeko?

baino merkeago, etxean bertan. Horrela amak 'El precio Justo' ikus dezake eta nik nahi dudana pelikula, nik nahi dudanean".

Astegunetan txikito gutxi batzuk jotzen ditu lagunekin, anaiarekin edo auzoko bere betiko koadrilarekin. "Mutikotan formalak ginen. Ganberradaren bat bai, baina ez dut uste auzoan gure kejarik izango dutenik".

Arrasate gustatzen zaio, nahiz eta lehen dibertigarriagoa zela aitortu. Mondrauetarren artean denetik dago, "merezki duen jendea, eta astakilo itzelak ere bai".

Miguel Angel Ariznabarreta, 55eko abuztukoa, bidaiatzea gustoko duen laguna. "Txikitan Lourdesa joan nintzen lau aldiz, eta ederto pasatu nuen. Hori bai, janaria oso txarra zen: zenbat perejil kendu behar, azkenean plateraren okela zati bat erdi galduta aurkitzeko!".

Miguel Angel: genio eta figura. Lanaren garrantzia.

Koadrila maitakor baten kronika

Ikusgarria da egunero Oñatiarrak tailerrera ailegatzen ikustea. Lerroan joaten dira, beti ordena berean: lehenengoa Keti, azkena beti Joxemi.

Tailerreko artista Mikel da inolako zalantza barik. Ederto imitatzen ditu Julio Iglesias, edota Raphael. Alfonso Guerrari buruz galdetu ezker, berehala erantzuten du: "Pazmao, maz que pazmao!".

Joxemi bere lekutik falta denean, enkargatuek segituan hartzen diote susmoa: ziur komunean dagoela, atea krisketatx eta zigarrotxo erretzen. Hori bai, in fraganti harrapatzen dutenean berak ez daki ezer, sekula, berak ez du ezer egin. Ke artean bere aurpegi potxoloa!

Luisito Eskoriatzako autista bat da, langile izugarri fina! Irtetzeko ordua iristen denean berak jaramonik ere ez. Ehun da piku kilotako mutiltzarra, Manuk Fenwick-ean atera behar izaten du tailerretik.

Manuelen ohitura sakratuena, bazkalostean Txanpiren bodegoian purua eta kafea hartzea da. Bodegoiko Bixentek kafea pagatzeko ohitura hartua du, eta, beraz, Manuel han egoten da pantxo-pantxo, Altunako langileak etorri eta ia zeinek pagatzen dion purua!

Final laurdenetan Sailkatuak



ZULOAK.

Zutik: Txomin, Juanito, Patxi, Eperra, Iban, eta Etxabe.
Makurtuta: Jabier, Ramon, Karlos, Galo eta Uranga.



TRIKITI.

Zutik: Roman, Piti, Iñaki, Rafa eta J. Mari.
Makurtuta: Raul, Txutxi, Fito, Antxon eta Enrike.



LENITZ GARAGARDOTEGIA.

Zutik: Boni, Carlos, Fermin, Carlos eta Mikel.
Makurtuta: Txema, Xanti, Nando, Elias eta Inazio.



ARGI IBILI.

Zutik: Txema, Tronpe, Bunder, Mange eta Beti Jai.
Makurtuta: Fede, Luma, Ramon eta Bakalao.

Zarugalden...

BRANKA

taberna

Trikiti S.L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 15

Zaldibar
11.00 Zuloak-Argi Ibili
12.00 Trikiti-Lenitz



**Gumersindo Perez
(Zaldibarko arbitroa)**

Arbitro batzuk jokalariek eta ikusleek esandako gauza asko entzun behar izaten dituzte, "bai, gauza asko esaten dira, askotan arbitroak egiten duen lanaren kontra baina nik kanpotik entzuten denari ez diot kasurik egiten". Baina Zaldibarren konkretuki, ez du aparteko arazorik euki jokalariekin, antolaketa ona iruditzen zaio eta jokalarien maila ere parekoa.

"Zein ekipo gustatzen zaidan? beno, Argi Ibili, adibidez asko gustatzen zait, jokalarionak ditu eta beharbada, finalera iristeko posibilitate gehien berak ditu".

Hurrengo urteari begira, ez du aldaketa handirik aurreikusten Gumersindok eta antolatzaileek berarekin kontatzen badute, pozik hartuko luke parte berriz ere.

URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA



UrIBE auzoko txapelketan, joan den asteburuan jokatu ziren final laurdenetako lehenengo partiduak, honako emaitza hauekin:

- Anbotoste K.T. 3 - Auf dem Koffer 1
- Alpagata Turbo 3 - Ganbelas 1
- Tabernikolas 5 - Sokoakoak 1
- Potrosorri 0 - Lautherbrunnen 1

Baina kontuak erabaki gabe daude, asteburu honetan jokatuko baitira final laurdenetako bueltako partiduak. Larunbat arratsaldean izango da hori, honako ordutegiekin:

- 16.00, Iturripe A: Sokoakoak - Tabernikolas
- 17.00, Iturripe A: Lautherbrunnen - Potrosorri
- 18.00, Iturripe A: Auf dem Koffer - Anbotoste K.T.
- 18.00, Iturripe B: Ganbelas - Alpagata Turbo

Trikipublic

Kanpatorpea, 2
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● Maria Luisa Peña Diputazioko Familia- hezitzailea

Diputazioak, arazoak dituzten umeei laguntzeko orain dela bi urte martxan jarri zuen programaren barruan, familia-hezitzailea da Maria Luisa.

— Zein da familia-hezitzaile baten lana?

— Gipuzkoako Diputazioak, arazoak dituzten familiei, umeei konkretuki, laguntzeko duen programaren barruan, ekipo handiak egiten dugu lan: medikuak, psikologoak, gizarte laguntzaileak... Ekipo horren barruan, nik familia-hezitzailearen lana egiten dut. Konkretuki, arazoak dituzten umeei laguntzea da helburua, horretarako, gehien bat, gurasoekin egin behar izaten dugu lan: garbitasuna, elikadura, etxeko giroa, eskolan umeei dituzten arazoak, gurasoen autonomia... gai desberdinetaz hitz egiten dugu, beti ere, seme-alabei zuzendutako laguntza konkretatu nahian. Baina, esan bezala, ekipo baten barruan egiten dut lan, ez da nire lana bakarrik. Gaur egun, 19 familia-hezitzaile, 8 tera-

peuta eta 5 koordinatzailek osatzen dugu ekipoa. Dena dela, kanpotik eta kasu bakoitzaren arabera, bestelako laguntza ere jasotzen dugu.

— Nola aurkitzen dira umehauen arazoak?

— Normalean, eskola mailan ikusten diren arazoak izaten dira lehen seinalea. Hortik hasita, gizarte laguntzaileak ikerketa berezi bat hasten du, gurasoen eta etxean dauden arazoak ikeritzen dira, gurasoekin bilera bat egiten da arazoa eta egon daitezkeen irtenbideak azaltzeko eta hor hasten da Diputazioko ekipoaren lana, gure lana. Arrasaten ez dago laguntza hau jasotzen duen familia bat ere. Oñatin, Bergaran... herri horietan egiten dut lan.

— Zenbat denborako tratamendua behar izaten dute familia hauek?

— Beno, kasu bakoitzean aldatu egiten da. Normalean, astean bi aldiz joaten naiz, baina beharrezkoa baldin bada, hiru edo lau aldiz. Horretaz gain, esan behar da programa honek bi urte darama-



tzala martxan. Hasieran, gurasoen historiala ezagutzen saiatzen naiz, familiako giroa eta beste ezaugarriak ezagutzeko, gurasoen kapazitatea eta umeei beharrak balantza batean jarri eta bakoitzak eman dezakeena ezagutzeko, azken batean. Guzti hori ezagutu eta gero, lanean hasten naiz, familia bakoitzari laguntza konkretua ematen. Koordinatzailearekin helburu batzuk markatzen ditugu eta denborarekin, zein mailatan betetzen diren ikusi.

— Zelako jarrera agertzen dute gurasoek?

— Normalean onartu egiten dute laguntza hau. Behar bada, hasiera hasieratik, gurasoak umeei dituzten arazoekin sentsibilizatzea lortu nahi izaten dugulako. Euren izaten ditugun bileretan,

akordio batzutara iristen gara, arazoa nola konpon daitekeen ikusteko. Ume hauek, 0-15 urte bitartekoak izaten dira, nagusiagoek euren independentzia dutelako. Baina, orokorrean ez dago kontutan hartzen den adinik.

— Laguntzak izan duen eraginaren jarraipena egiten duzue?

— Bai, baina jarraipena egunez egun egiten da, hau da, zerbitzua edo laguntza ematera joaten naizen bakoitzean informea egin behar izaten dut, koordinatzaileak eta ekipo osoak jarraipena egin dezan. Bi urtetako laguntza markatzen dugu gutxienez eta tratamenduaren barruan gurasoek izan duten aldaketa ikertzen da. Dena dela, familia baten barruan gorde behar den autonomia ere errespetatu egiten da, gurasoek erabaki batzuk euren kabuz har ditzaten, adibidez. Tratamenduaren barruan, laguntza mota aldatuz joaten da denborarekin; hasiera batean, astean bi aldiz joaten banaiz, denborarekin hilean behin edo bi hilabetean behin, familiaren arabera.

● **“Eskolan umeei dituen arazoak, familian dagoen problematikaren lehen seinalea izaten dira”**



Olateko presan egin du lan Jose Ramon Alvarezek, eta lehengo eta gaurko teknikak ezagutzen ditu.

Jose Ramon eta Dionisio, turbineruek

Industrialak eta ekologistak

Luis Fernandez

Jose Ramon Alvarez, 45 urte, eta Dionisio Zabarte, 71, gutxi ezagutzen den ofizio batekoak dira: turbineroak. Garai batean, Deba Harroko erreka-salto guztietan zegoen argi-indarra sortzeko zentraltxoren bat, turbina batekin edo. Hor lan egiten zutenak ziren turbineroak. Jose Ramonek 10 urtez Oñatiko Olateko presan ezagutu du lanbidea. Dionisiori aitarengandik datorkio ofizioa. Industriaren kezka eta ardura ekologista bilzen dituen lanbide baten testigantza eskaintzen digute biek.

Dionisio Zabarte Gesalibarren bizi da, bertan, Txirrita jatetxerako ur bero, eta la-been argia gorago dagoen Auzo-Erota baserrian daukan turbinatik lortzen du.

Dionisio.— Oñe ehun bat urte zala, hamen inguruen zana salto inportantiena zuan horixe, Imanol Ormaetxean sererixie. Hor jauan Argi-Erota S.A. enpresie, ta nik ezautu nittuan junta diretiba guztia. Zittuan, Goiu, Guriditarrak eta gero azkenengo presidentie izan zuan Domingo Arzamendi Enparanza! Alkate izandakue! Gure aitte difuntue zuan horko makinistie edo turbinerue.

— Zentral asko zegoen lehen.

Jose Ramon.— Gipuzkoa eta Deba bailaran inportan-

tiek izen die turbinak beti. Beste leku batzuetan haundixek dau; Valdecaballerosen ez-dakitt-zenbatentzako modukue dau. Baina niri horreik zentral haundixok etxatatz gustetan. Esaterako, baina eingo banittuen abioi txixixek, biplanuek edo, eta, hi, Concorde eñ juek! Ba, beste mundu bat da hori.

D.— Hamen, Aramaixotik bera hasi eta jazak hamabi aprobetxamieto, errekatik zuzenien, errekaazuluek kontau barik, Uribe auzoraiño, hantxe euen azkenengo presie. Eta Aramaixotik gora euzen beste dozenerdi bat bai, eta Aramaixon bat oso inportantie, bidaltzen eben inddarra Otxandixora. Baiña orduan argixak eseuen aprobetxamientorik bi bonbillarako baiño. Etxietan ze egongo zan ba? bi bonbilla? Ondo zainddute gainera, ez oiñ moduen...

— Zeurea noiztik daukazu martxan?


D.— Hau inaugureu zuan egun historiko baten. Zuan Tejerazo famosuen eguna, 23-F [1981ean]. Turbina hau Zaragozan eindda dau, eta etorri zien hona injenierue, montadorie eta Kandido, nire konsuegrue, eta emon gutzen martxie eta aibadios, argixe! joder! Juan gituan Txirritara, jarri gituan eta afarixe eñ bihezala, zelebretako ta txanpana edan bihezala, ta txanpana di-da, eta argixe be, orduan dana argixekin jarri giñuan. Hango txanpana edan bihera eta hango zelebrazie, eta apur batera, tabernako barran, mobimieto raroren bat eta, Tejerok Madril hartu dauela! jentie añiketadatorrela ta, aibadios, enterau barik gu...

— Kalterik egiten dio zentralak errekeri?

J.R.—Ez da arraiñik sartzen, han dauko parrilla bat eta ez da sartzen.

A
ngulek, zeñek
jakin zer zien,
baiña hantxe
euzen, pegaute
presan, gorutz
oiezen”

JOSE RAMON ALVAREZ



Gesalibarko Auzo-Errotan dauka Diونيسio Zabartek turbina, eta Txirrita jatetxerako erabiltzen du.

D.— Honek errekie reje-nerau eitten dau, turbinatik pasuen, hartzen dau tratue kaskada baten modukue, indarrakin, eta horrek osijenau eitten dau. Len angirie zuan problemie, geure aitte zanak han eukena, sasoian, neguen hasieran. Paletan, txikixek pasau, eta haundi samarrak han geratzen zien trabaute.

— Lehen arrainak eta kangrejoak ugariak izango ziren.

D.— Kangrejue, lehen egongo ez zan ba! Mondrauen be bai. Sasoie zanian, lelen-go, guardio-sobillek ondo zaindu, eta itxoiten giñun bai, eta hortxe hartzen giñun kangrejue.

J.R.— Oñatin Larreategiko presan hil zan behin bat, suizidau eiñ zan, oiñ 30 urte edo. Hustu zan presie, hildakue atarateko, eta hala euen txapelaz, eta atara ebenetako batek presiari begiratu eta esan eban, mekauden sos, ikusi! angulek! eta angulek, zeiniek jakin zer zien! baiña hantxe euzen, pegaute presan, gorutz oiezen, gorutz.

— Egia da orain euri gu-

txiagio izaten dala?

D.— Esan, halan esaten daue, baina hor goiko deposituek [zerukoak], hor dauz, ez dakit gerora pakien itxikoutzien, baina oiñ arte hor dauz. Gero, uraundixek, juan dan domekakue [apirilak 25] haundixe izen zan. Oiñ bada-kizu zer dan? Errekak dauz kanalizaute.

— Konponduko ote da erreketo kontaminazio edo kutsadura?

K

alterik haundixena, ez die ez fabrikek, ez ezebe. Piñuek die!”

DIONISIO ZABARTE

J.R.— Ez dot pentzetan. Ikusten dozu fabrika baten eta, zer da hau, azidue, 300.000 litro, eta ba, bota erre kara. Orduan enkarguari: ez, hori ez bota! Orduan zer esango dau: zer, beste ekologista bat? Hori ez dogu biher hamen, fuera!

D.— Hamen, kalterik haundixena, ez da ez fabrikak, ez ezebe... Piñuek! Piñuek egurre eingo dau, baina piñuek ze eitten dauen, hamen dauketzu muestrie, uraundixek, oiñ hamar egun noraiño allegau zien urek. Hori bat. Gero, piñuei azufre moduko polen hori hasten jakuenien, horrek bere inguruen dauzen arbola danei kriston kaltia eitten jutzek, keixarbolei eta. Baitte norberan osasunandako be, hori sasoioi danien, euri apur bat eitten badau, lurre, dana laru-laru eindde, azufrian koloriaz dana. Gero, hamen guk geuken itturri bat, manantial bat, ure sekula ez zan faltetan, sekula bez. Piñue sartu zan ezkerro, juan zan, eztau urik.

— Eta zentral nuklearrak?

J.R.— Ez dot pentzetan argirik egon leikenik dane-rako zentral nukear barik. Eta gero daukozuz zentral termikuek, eta horreik be ez die onak. Batzuk esaten dabe zentral nuklearrak... Eta bestiek?

Teknologia zaharrak eta berriak

Turbineruen munduan, teknologia berriekin dena aldatu da. Baina Jose Ramon eta Dionisiok maisu zaharrak dituzte gogoan, bereziki duela gutxi hildako Pedro Carballin ermutarra, euskal turbineroen erregea. Jose Ramonek, bi adibiderekkin deskribatzen dizkigu lehengo eta oraingo sistemak.

• Lehengoa. “Añorga aldien, zentral baten, dago mutilzar bat, erdi mozkor bat, eta dauko txakur txikitxo bat, Pintxo, eta daukoz bi argi zentralien, bata berdie eta bestie gorrixek, eta segun zer, alarmiek jo, edo boltajie bajau edo bestie disparau, han ipinitte dauko txakurre, eta tak, berdie ixotu, eta takarraran, bere billa doie, tabernara”.

• Oraingoa. “Plasentzian, zentrala barrixe da baiña, betikue. Jarriko dogula makiña elegantie eta zentral elegantie, turbinia hamen, makiñie han, hau harrizkue, hau holakue, hau bestelakue, eta zentrala dana politte, baiña kanaletan eztau iñok begiratzen, han botak jarri biher, eta injenieruei etxakue gustetan. Injenieruei, despatxo ona eta kalkuladorie numerituek eitteko... baiña kanalien, sartu eiñ biher! Eta oinddio Plasentzian bueltaka dauz, plan de biabilidad eta...”



Korrikalarien helburua, ibilbidea 34 minutu 31 segundu baino azkarrago egitea.

Arrasate-Oñati, "kirola euskaraz janzteko" aukera

"Jantzi kirola euskaraz" lemapean, igandean, maiatzak 16, ospatuko da Arrasate-Oñati lasterketaren XI. edizioa. Lasterketa ospetsu eta herrikoi honen sorrera aurkitu nahi izanez gero, Oñatiko koadrila batengana iristen gara. Lagun talde hau, duela hamaika urte, Behobia-Donostia lasterketaz berriketan ari zirela, ea Oñatin horrelako zerbait egiterik egongo ote zen bururatu zitzaion norbaiti. Pentsatu eta ekin, handik gutxira asmatu zuten lasterketa egitea.

Baina aurten ospatuko den edizioak aipatu beharreko berritasun bat dauka. Antolatzaile ofizialak ez dira orain arteko koadrila oña-

tiar hori izango, baizik eta Laixan, Oñatin euskararen alde diharduen taldea, eta AED elkarteak. Laguntzaile gisa, Oñatiko Udala eta Aloña Mendi kirol taldeko atletismo saila daude.

Ibilbidea ohizkoa izango da, hau da, Arrasateko Portaloitik abiatuz, Garibai pasealekutik Musakolarantz, ondoren San Prudentzian Oñatirako bidea hartu, Zubillaga, Santxolopeztegi, Garibai eta Goribar igaro ondoren, Otadui zuhaiztia eta Kale Zaharretik barrena, Enparantzara iritsiko dira. Azkenik, Atzekokaletik igo, eta Kale Barria jaitsi ondoren, helmuga aurkituko dute. Guztira, 11 kilometro eta 300 metro. Irteera goizeko

11.30etan izango da.

Izen ematea 500 PTA dira, eta oraindik badago hastirik "kirola euskaraz janzteko". Larunbatez, Oñatin Aloña Mendi elkarteak, eta Arrasaten AEDn eta Arrasate Kirolak denda eman daiteke izena. Igandean bertan ere eman daiteke izena, Monte tabernan 9etatik 11era.

Partehartzaileen helburua, batzuen behintzat, Diego Garciak 1988an lortutako 34 minutu eta 31 segunduko marka hobetzea izango da. Diego Garciaz gain, beste korrikalari ospetsu batzuek ere korritu izan dute frogan, hala nola Garin anaiek edo Maria Luisa Irizarrek. Iazko irabazlea Joxe

Saskibaloia denboraldiari agur

Arrasate Saskibaloia Taldeko bi talde nagusiek, denboraldia amaitu zuten asteburuan. Gizonezkoek Donostian jokatu zuten Atletico San Sebastian taldearen aurka eta 76-71 galdu zuten. Emaitza horren ondoren, Bigarren Mailako C-1 taldean zortzigarren bukatu du denboraldia Arrasatek. Emakumezkoetan, 50-62 galdu zuen Arrasatek Musakolan Jarrilleros taldearen aurka. 2. Mailako jaitsiera ebitatzeko taldean jokatu du ligaren azken fasea Arrasatek eta 3. geratu dira taulan. Datoren urterako esponsorra aurkitzea da lan nagusia.

Musakolan kirola jai giroan

Musakolako jaietan kirol ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburu honetarako. Larunbatean, pilota partiduak goizeko 10.30etan, gomazko pilotan, narrazio pilotan eta pala motzean. 11etan Karate erakustaldia. 4etan txirrindulari frogak, 5.30etan sokatira saria eta gaez bolo txapelketako finala. Igandean, eguerdiko 12etan gimnasia erritmiko erakustaldia eta arratsaldean herri kirolak: harri-jasotzea, aizkora dema eta ahari topeka. Horrez gain, Arrasateko Motozale Elkarteak antolatutako IV. motorista kontzentrazioa izango da larunbatean eguerdiko 12etan.

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE


PENALTIAK

● **Penalti sail honetan, penaltian kale egin zuen Mondra taldeko Carrillo aipatu behar. Durango-Mondra partiduan (1-1) zorte txarra izan zuten arrasatearrek. Dena den, Carrillo izan zen jokalaria onenarikoa. Bi partidu falta liga amaitzeko, eta igogerarako play-off-a eskura du Mondrak: bi puntu falta zaizkio.**



Motor kontzentrazioa Zigarrolan

Musakolako jaietara duela bost urte desagertutako motorzaleen kontzentrazioa itzuli da. Arrasateko Motozale Elkarteak berreskuratu du IV edizio hau, Zigarrolako motorista gazte talde baten inizatibaz bereziki. Inskripzioa, 2.000 PTAB dira eta horren truke, antolatzaileek larunbateko afaria, jokoak, igandeko gosaria, ibilbide turistikoa eta sari banaketa agindu dute. 300 bat motor espero dituzte Musakolan asteburuan, era guztietakoak, ziklomotorretatik hasi eta Harley *kustomitazuetara*. "Makarra fama du motorismoak, baina denetarikoa jendea dago", esplikatzen digu Joseba Barandiaranek, antolatzaileetako batek. "Jai antolatzaileak ez ziren fio lehenbizikoan, baina gero arazorik ez digute jarri, zer giro jatorra zegoen ikusita".



FELIX IÑURRATEGI Mendizalea

Eta orain, K2rantz...

Igandean irtengo dugu hiruk, eta hurrengoan beste hiruek. Maiatzaren 28an Pakistanetik Txinara joango gara eta han kanpamentu bazea jarriko dugu ekainean. Bertan egongo gara abuztu erdirarte. Kanpamentuan lan asko egingo dugu prestatzen, zailtasun tekniko handia dauka K2k eta gainera bakarrik egongo gara. Bi euskaldun izan dira han, Mari Abrego eta Josema Casimiro, baina Pakistanetik; Txinatik zailagoa da mendia. Oxigeno barik goaz, oxigeno kontua, guk aipatu ere ez. Mendi honi fama txarra eman zaio, baina fama txarra izateko motiboak beste edozeinek bezala dauzka. Gailurra uztail amaiera edo abuztu hasieran egiten saiatuko gara.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Durango 1 - Mondra 1
 Preferente Araba: San Andres 1 - Abetxuko 1
 Emakumezkoak: Mondra 3 - Ostadar 2
 Jubenilak, ohorezkoa: Mondra 0 - Union Txiki 4
 Jubenilak, 1. maila: Alaves 1 - San Andres 2
 Jubenilak, 2. maila: Arrasate 2 - Soraluze 2
 Kadeteak, 1. maila: Arrasate 12 - Aurerra 0
 Kadeteak, 2. maila: Arrasate 9 - Soraluze 1
 Haurrak: Arrasate 0 - OIartzun 1
 Txikiak: Arrasate 6 - Bergara 3

Hurrengo partiduak

3. maila: Mondra - Bermeo. Igandean, 5etan.
 Preferente Araba: Baskonia - San Andres. Gasteizen, igandean, 5.30etan.
 Jubenilak, ohorezkoa: Mondra - Sproting. Larunbatean, 5.30etan.
 Jubenilak, 1. maila: San Andres - Lakua. Igandean, 10.30etan.
 Jubenilak, 2. maila: Hernani - Arrasate. Igandean, 10.30etan.
 Kadeteak, 1. maila: Urola - Arrasate. Argixaon, igandean, 12etan.
 Haurrak: Billabona - Arrasate 0. Larunbatean, 12etan.
 Txikiak: Arrasate - Eibartarrak. Larunbatean, 10.30etan.

Saskibaloia

Senior gizonezkoak: At. San Sebastian 76 - Arrasate 71
 Senior emakumezkoak: Arrasate 50 - Jarrilleros 62
 Jubenilak, mutilak: Miner - Arrasate B (Bergarako Minerrekoak ez ziren azaldu)

Jubenilak, mutilak: Arrasate A 94 - Andraitz 81
 Kadete mutilak: A. Baloncesto 51 - Arrasate A 67
 Kadete neskek: Arrasate A 62 - Ordizia 35
 Kadete neskek: Arrasate B 24 - Laskorain 27
Hurrengo partiduak
 Sub-23: Arrasate - At. San Sebastian.
 Jubenilak, mutilak: CD Bergara - Arrasate A. Igandea, 12.15.
 Jubenilak, mutilak: Arrasate B - Ikas. Urmek. Musakola, larunbata, 16.00.
 Jubenilak, neskek: Arrasate A - J. Donosti. Musakola, igandea, 12.00.

Eskubaloia

Gipuzkoako Kopa:
 Arrasate Senior 16 - Arrasate Junior 21

Pelota

Herriarteko txapelketan, eskuz:
 Infantilak: Usurbil 18 - Arrasate 3
 Jubenilak: Usurbil 8 - Arrasate 22
 Nagusiak: Usurbil 12 - Arrasate 22
 Deba Harroko txapelketa:
 Infantilak: Arrasate 18 - Eskoriatza 5
 Jubenilak: Arrasate 22 - Eskoriatza 8
 Nagusiak: Arrasate 22 - Eskoriatza 19
 (Txapelketako hiru talde arrasatearrak sailkatuta finalerdietarako)
Hurrengo partiduak
 Herriarteko txapelketan Arrasate-Usurbil, ostiralean, 7etan.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
 ARRASATE

Azkenengo koska: Selektibitatea

Indarrean dagoen heziketa-sistemak, unibertsitatearen esku uzten du, neurri baten behintzat, jaso nahi dituen ikasleek aukeraketa.

Unibertsitateak aukeraketa horretarako erabiltzen duen bidea, froga sorta bat da (selektibitateko azterketa), daukan tresnarik sinpleena eta operati- boena aldi berean.

Horrela, ikasle batek bere ikasketxean izan dituen emaitza akademikoak zalantzak jartzzen ditu unibertsitateak.

Urtetan zehar, eta aldian aldian, zentru ezberdinen arte- tik etorkizuneko unibertsitariak izango direnak galbahean pasatu, aukeratu eta banatzeko bidean jartzen zaien koska horren aurrean, errebelatu egin izan dira ikasleak.

Hori horrela izan arren, hala ere, ez dirudi sistemak aldatu- tarik izango duenik kontzeptzio- ari dagokionez behintzat. Ikas- turte honetarako aldatu da arlo batzuetan, besteak beste esam- inak egiteko denbora, zu-



zenketarako erabiltzen diren irizpideak jakitez ematea eta espedienteko batzbesteko noten eta esaminaren artean ezberdintasun nabarmenak dauden kasuetan inspezio teknikoaren kontrola egitea bezalako puntuak dagokie- nean.

Hori dela eta, bere ikas- ketetan etapa baten amaiera markatuko duen erronka

personal gisa hartu behar luke ikasleak selektibitatea. Bere buruari helburu jakin bat jartzeko eta beste batzuekiko lehian lortzen saiatz-eko ere balio izan behar luke.

Beharbada, esamina horren baliorik handiena hauxe izango da: momentu horre- tatik aurrera ikasketak eta lana beste batzuekiko kon-

petitiboak direla eta esfor- tzuaren ondorio diren emait- zak ez direla beti arrakasta- rekin saritzen.

JULIAN SERRANO
HEZIBIDEKO IDAZKARI
TEKNIKOAK



(Erredakzioan itzulia)



I.F.P. ARETXABALETA

Leniz Lanbide Inestegia


1993-94 IKASTURTEA

IKASKETAK / ESPEZIALITATEAK

- Batxilergo orokorra (REM 1. zikloa)
- Batxilergo tekniko-industrialia (REM 2. zikloa)
- Bigarren mailako Heziketa Profesionala "AUTOMOZIOA"
- Modulo Profesionala -3 "SISTEMA AUTOMATIKO PROGRAMARRIAK"

PREINSKRIPZIOA

Maiatzaren 13tik 31ra, biak barne.
(ordutegia: 9etatik 12ak arte eta 3etatik 5ak arte)



MATRIKULAZIOA

Uztailaren 1etik 9a arte, biak barne.
(ordutegia: 9etatik 2ak arte)



San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta
pertsona bakoitza hezitzen**



2. Mallako Hezkuntza Derrigorrezkoa (12-16)

- * D, B eta A Ereduak
- * Teknologia (Informatikarekin)
- * Laguntza gela
- * Orientazio eskolarra edota lanerakoa
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua

Gol Batxilergoak (16-18)

- * Ereduak: D eta A
- * Batxilergo motak:
 - +Natur Zientziak
 - +Giza Zientziak:
 - Letretako adarra
 - Adar administratiboa
- * Ordutegi etengabea (8:00/14:30)
- * Tutoretzak arlo bakoitzean
- * Orientazio prozesu sakona

- * **Hezibideko partaidea**
- * **Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea**



Bizigiro Osasuna Moduloa

Batxilergoa bukatzean beste aukera bat. Praktika-saioak entrepresa eta laborategietan

Matrikula epea zabalik

**Arrasate Pasealekua 10
Telefonoa: 790411**



ARRASATEKO UDALA

1993ko Arrisku Soldata Programarako Deialdia

Arrasateko Udalak jakinarazi nahi die interesatu guztiei, aurtengo Arrisku-Soldata Programarako proiektuak aurkezteko epea zabalik dagoela 1993ko maiatzaren 21era arte.

NORI ZUZENTZEN ZAIO PROGRAMA HAU?

Enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa daukanari.

ZER ESKATZEN DA?

Hauxe litzateke programa honek eskaintzen duen laguntza:

- Aukeratutako Proiektuen promotore baten kontratazioa, negozioaren bideragarritasun estudioa egin bitartean.**
- Negozioaren estudioa burutzeko aholkularitza teknikoa.**

Proiektuak aurkezteko eta informazio gehiago eskatzeko, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzura zuzendu daiteke.

S

an Isidroak orain ere jai handiak badira, zer esanik ez orain urte batzuk ospatzen zirenak. Gerra aurrean, dantza taldea ere osatu zen Zigarrolako Batzokian. Kanean beste batzoki bat zegoen, orain Banco Guipuzcoa dagoen etxean, atzekaldera lorategi ederra eta jardina ere bazituela. Musakolakoa, berriz, zubiaren ondoan dagoen etxean ei zegoen. Erretratu hau 1935-edo 36an atera zuten, dantzan egin eta gero Batzokiaren aurrean. Zutik ezkerretik hasita, **Angel Garai** txistularia, Zeleta baserriko semea, **Daniel Arizabaleta**, **Eugenio Garai** "Makatz", **Alberto Arregi** "Garratz", **Bixente Egidazu** "Maxua", **Jose Mari Garai** Zeleta baserrikoa, **Mateo Iturbe** Santamaña baserrikoa eta **Angel Arana** "Porru", tanborrarekin.

Behean makurtuta, **Paxiko Arregi** Arruena baserrikoa, **Luis Egidazu** Arruena edo Kaskonategiko beste bizitzailea eta **Modesto Barrotiabengoa**, Arbekoa.

Dantza talde honek hiru lau urte iraun zuen, gerra hasi arte, eta euren dantzen artean, ezpata dantza, makildantza, binakoa, launakoa eta txankurankua zeuden, besteak beste. Nesken talderik ez zegoen orduan. **Luzio Berezibar** "Errekalde" izaten zuten



erakusle. San Inazio egunean nazionalistek ospakizun berezia izaten zuten, eta batzokiko pilotalekuan dantzan egiten zuten. Euren ilusiorik handiena Donostiara joatea

zen, baina gerra hasi zen eta ez zuten aukerarik izan.

San Isidro egun euritsu baten, dantzan egin behar zuten lekuan sekulako potzuak egin ei ziren, eta alboko ze-

rrategitik zakukara pila bat zerrauts ekarri zuten potzuan botatzeko. Dantzan hasi zirenean, hango txipristina! agudo egin ei zen korroa dantzarien inguruan!

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Bi oheko gela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua edo logela behar da Arrasaten.** Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- **Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut.** Tfnoa: 71 41 21.
- **Arrasaten pisua alokatzen da, San Andresen.** Guztiz jantzita. Tfnoa: 79 85 39.
- **Pisu bat behar da alokatzeko.** Hutsik ba dago hobea. Tfnoa: 77 11 22. Gaeuz.

Lana

- **Presi nago atarte, bulego eta lokal komertzialak garbitzeko.** Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **RIEM eta OHOKo klase partikularrak emango dituzke.** Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- **Esperientziadun emakumeak umeak zainduko dituzke.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **OHOKo zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira (maila guztiak).** Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Ordenadoreetan lanak egiten dira.** 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maitte.
- **Neska gertu dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 77 94. M^e Eugenia.

- **Esperientziadun emakumea etxeko lanak egin eta umeak eta/edo pertsona nagusiak zainduko lituzke.** Tfnoa: 77 05 49.
- **Etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 77 01 43. Idoia.

Salerosketak

- **Nintendo kontsola, eurokonektorea behar duena, salgai 6.000 PTAan.** Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- **Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai.** Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.
- **Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke.** Tnoa: 77 04 98.
- **Seat 127, BI-K salgai 40.000.** Dei egin goizez (945) 27 63 39 tfnora.
- **Bost tokiko Adria markako karabana salgai.** Bi urte ditu. Berogailu eta guzti. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.
- **Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai.** Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabierto.
- **Egoera onean dauden Razesa markako bi bizikleta salgai.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.
- **Karabana saldu nahi dut.** Adria karabana salgai, 4-5 personentzako, oso egoera onean. Abantzea eta frigorifikoa. Tfnoa: 76 49 14. Gaueko 9etatik aurrera.

- **Vespa motorra SS-V salgai.** Tfnoa: 79 91 41.
- **Opel Corsa City, BI-AK saltzen dut.** Hobekuntzakin. Deitu lan orduetan 94-620 19 18 tfnora. (Gorka)
- **Barku itxurako ohea, antzinakoa eta antzinako komora salgai.** Tfnoa: 79 93 06. Nati

Denetarik

- **Erretratuak zein edonolako irudiak egiten dira oleoz.** Monterroi aurreko Uxarte gozodendan dago hainbat kuadro ikusgai. Informazio gehiagorako dei egin 79 83 76 tfnora. Pako.
 - **Musika taldeak behar ditugu lokala denon artean alokatzeko.** Tfnoa: 79 13 26.
- Lasagari esker onez.** Apa Lasaga! Lerro honein bidez Hiru Haundixek hiru egunetan eitten ibili gizenok eskerrak emun gura dotzugu zure kolaboraziuegatik. Ah! eta Dukieneko Dionik aho bete emungo dotzu gure konture. Portau haiz! Ibiltariok.
- **Apirilaren 18ko goizean, buru marroia eta txuria duen ehiza txakurra galdu zen Lariñon.** Norbaitek ikusi badu, dei egin dezala mesedez 79 93 52 tfnora.
 - **Urtebeteko pointer-setter txakurra ematen da.** Noblia eta osasuntsua. Tfnoa: 79 41 49.
 - **Identitateko txapa kataiduna galdu da;** Danel izena jartzen du eta 1-5-93 eguna. Arrasateko 79 37 00 telefonora dei egin gaueko 9etatik aurrera, edo ARRASATE PRESSera bertara. Eskertu egingo da.

Aste Gazte

Gazte txartela

Hasi da, azkenik, kanpaina berria. 15 eta 25 urte bitarteko gazte guztiek doan eskura dezakete. Argazki bat eta N.A.N. aurkeztea baino ez duzue. Norberak berea egitera etorri behar du.

Arrisku soldata programa

Enpresa ideiak lanpostu bilakatzen laguntzeko programa. Interesatuak maiatzaren 21era arte dute

epea proiektuak aurkezteko.

Bekak

Nikanor Zabaleta beka: bibolin, biola, biolontzelo, edo kontrabajo ikasketetako 10. ikasturtea gaindutu duten gipuzkoarrei zuzendua. Epea: maiatzak 31 (apirilaren 22ko G.A.O.)

Ikastaroak

“Tanborrak eta akuarelak” maiatzak 16-19 aste-buruko ikastaroa. Etxalarko Saroiberri baserrian.

Prezioa: 10.000 PTA (pentsio osoa eta materialak barne). Izenemateak: 798025

Aterpetxeak

Orio, Zarautz eta Hondarribiko aterpetxeak: iraitetik aurrera taldeak erreserbatzeko epea zabalik dago.

Zeramika topaketak

Zarautzen uztailen. Portzelana eta eskultura tailerrak eta hitzaldiak.

“Gazte izateak, besteak beste, edertasun paregabe bat esan nahi du. ez da gezurra. Ederra gorputzez, ederra bihotzez eta ederra buruz”.

JOXEMARI ARANALDE DONOSTIAKO IRAKASLEA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

M^a Carmen Velez de Mendizabal

Artea dendakoa



- **Ileapaindegira joatea gustatzen?** Bai, baina ez naiz asko joaten, hilabetean behin edo.
- **Marrakzi bizidunak gustatzen?** Bai, baina ez dut gehiegi ikusten.
- **Badakizu trikitixa dantzatzen?** Bai, aspaldi ikasi nuen eta gustatu ere asko gustatzen zait.
- **Irratian, zein programa duzu gustoko?** Egunero Euskadi Irratia jartzen dut.
- **Perfumerik?** Bai, egunero erabiltzen dut: Yves Lauren eta Paris.
- **Egunero egiten dituzu erosketak?** Beti dago zerbait erosteko beharra.
- **Eguzkitarako antiojuak erabiltzen dituzu?** Bai, batez ere, beharrezkoak direlako.
- **Pazientzia handikoa zara?** Beno, nire ustez nahiko pazientzia dut.
- **Arrasatear asko ezagutzen duzu?** Puf, denak. Betidanik bizi izan naiz hemen eta.
- **Nola deitzen dizute lagunek?** Askok "La Velez".
- **Egunean zenbat aldiz begiratzen duzu ispiluan?** Justu justu eta beti presaka.
- **Pintura estilo bat?** Inpresionista.
- **Pintore bat?** Joakin Sorolla.
- **Eta arrasatekorik?** Askok daude onak: Julio Galarta, Martxen Arana, Estibaliz Ormaetxea...

BERTSOAK

UDABERRIKO GOIZ EDER BATEN UDALAITZEN

Aizia bare, zerua oskarbi oso egualdi jatorra kukuan doinu politarekin jun nintzan mendian gora ziro nekatu ta izarditan baina alare gustora zapaldu nuen hiru probintzi babesten dagon tontorra.

Amendik bistan agertzen dia Euskadi danan zatiak erri ta auzo, baso ta itsaso kale eta baserriak Gorbea, Anboto, Kurutzebarri ta Aizkorri bere anaiak eta ondoren bat nai ginduzke Nafarroako mendiak.

Aldapa handia, bide estua denian arri libria alare asko gustatzen zait neri onuntz etortzia amendi ondo ikusitzen da mundura nintzan tokia lortu ez diran ainbeste amets eder eindako kabia.

AGARRE

HITZALDIA

Ikastolak, erabaki beharrean

Tokia – Arrasateko Udaletxeko Pleno Aretoa
Ordua – 7etan
Eguna – maiatzak 19
Hizlariak – Antton Azkargorta
 losune lgoa



Pako Alvarez

“Ekintza” aldizkariaren arima

“Ekintza”, jubilatuek egin eta jubilatuei zuzendutako aldizkaria da. Orain dela lau urte sortu zen eta bi hilabetean behin kaleratzen den aldizkaria dugu. Erredakzioko partaidea da Pako.

— Noiz eta zergatik sortu zen Ekintza aldizkaria?

— 1989an sortu zen, baina ni urte batzuk beranduago sartu nintzen erredakzio taldean. Jubilatuen etxe desberdinetan dauden jubilatuz guztientzat eta herrian bizi direnentzat ere informazio iturri izatea da aldizkariaren helburua. Bestalde, bi hilabetean behin ateratzen denez, agertzen diren albisteek ez dute gaurkotasun handirik gordetzen, gauza orokorrak aukeratzeko ditugu, batez ere. Momentuko informazioa zabaltzeko astekaria edo hamabostekaria izango litzateke egokiena, baina momentuz oso zaila da hori lortzea.

— Zer motatako gaiak tratatzen dituzue?

— Jubilatuekin eta pertsona nagusiekin zerikusia duten gaiak tratatzen ditugu batez ere. Horretaz gain, Arrasaten irteten denez, jubilatuen etxe desberdinetako gaiak tratatzen ditugu eta kolaborazioak ere bertako jubilatuek egiten dituzte. Baina, jubilatuen etxeetara joaten direnak baino jubilatuz gehiago daude Arrasaten, eta horiei bidaltzea ere oso inportantea da. Horregatik, kanpaina bat jarri dugu martxan. Kanpaina honetan,



herrian dauden jubilatuz guztiei inkesta txiki bat bidali diegu, aldizkaria ezagutzen duten eta zer iritzi duten jakiteko. Aldizkaria etxean hartzea nahi dutenek ere hartu ahal izango dute. Ikusi egin beharko da nolako oihartzuna duen.

— Zenbat lagun zaudete erredakzioan eta nola egiten duzue lan?

— Beno, gaur egun Elena Arregik, gizarte laguntzaileak eta nik markatzen ditugu aldizkari bakoitzaren nondik no-

.....

“Pertsona nagusiek idatzitako artikuluak eta gurekin erlazionatutako arazoak, gaiak, gure adineko interesatu guztiei zabaltzea da gure helburua”

rakoak. 24 orri ditu aldizkariak eta bertan idazten duten kolaboratzaile batzuk finkoak dira, aldizkariaren euren tokia izaten dute, baina beste batzuk aldatuz joaten dira, eta hori ere eskatu egin behar izaten da. Artikulu guztiak bildu ondoren, fotokopiak egiten ditugu eta orriak grapatu ondoren, jubilatuen etxe desberdinetara bidaltzen ditugu. Aldizkariaren hasieran indizea ikusten baduzue: erredakzioko albisteak, jubilatuz bati elkarrizketa, kolaborazioak, literaturako kolaborazioak, bertsoak, beste aldizkari batzuetako albisteak... Aldizkariak urteekin izan duen aldaketa, lehen zerbakiak eta gaur egungoak konparatuz ikus daiteke. Hasierako aldizkaria gizarte laguntzaileak idatzi eta bildutako artikuluak betetzen zen batez ere, eta gaur egungoa jubilatuz idatzitakoa da, gehien bat. Hori oso inportantea da, jubilatuzko gero eta partehartze handiagoa izan dugu eta.

— Artikulu guztiak erdaraz dira?

— Beno, hasera batean denak erdaraz ziren baina denborarekin, batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz izatea lortu dugu. Udaleko itzultzaile zerbittuak ere asko lagundu digu maila honetan eta hurrengo aldizkaritik aurrera, albiste erdiak edo, euskaraz izango dira. Batzuk erdaraz eta euskaraz, beste batzuk euskara hutsean.

Eskulanen erakusketa

Asteburuan zehar ospatuko diren Musakolako jaien egitarauaren barruan, Musakolako Jubilatuz eta Pentziodunen Etxean eskulanen erakusketa egingo da. Jubilatuz taldeak urtean zehar egin dituzten eskulanak ikusi ahal izango dira bertan. Jende guztiari zuzenduta, erakusketa larunbatean egun osoz egongo da zabalik, goizeko 10.30etatik arratsaldeko 7etara.

Pintura erakusketa zabalik

Valentin Manterola pintore zumaiarrak Monterronen zabalik duen pintura erakusketa zabalik egongo da maiatzaren 22a bitartean. Itsasoa, paisaiak, aterkinak, loreak... dira bere kuadroetan ispatzen diren gaiak. Horretaz gain, kolore ugari erabiltzen ditu, gehienak argiak: urdina, grisa, morea... Arrasate eta inguruko herrietan ere hainbat lehiaketa irabazi ditu pintore honek, eta honako hau da Arrasaten egiten duen lehen erakusketa. Interesatuok, lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara bisita dezakezue.



MITOLOGIA

MARI (II)

Mariren egoitza lurpeko eremuetan dago. Ere mu hauek, ordea, lur-azalarekin bide bereziz elkaturik daude. Aipatu bideak, haitzulo eta leizeetara doaz. Horregatik, Marik, toki horietan egiten ditu bere agerpenak beste edonon baino maizago. Gehienentzatez, Mariren egoitza aberaski apaindurik dago, urre ta harribitxiz gainezka. Herri bakoitzak, inguruetako leizeren baten urrenezurren egoten dela Mari uste dute, bere ibilaldi eta lanak alde guztietan egiteko.

Mariren funtzioetarikoriko bat, aholkuak ematea da. Horretan, ola ez zebilkiola eta, olagizon bat Marirengana joan zen. Honek esanzion: "Zure olako ingude azpian harri bat dago; harri azpian apo bat; bota apoa eta ola lanean jarri ahal izango duzu".

Marik berarengan sinisten dutenak eta berarekin ongi portatzen direnak saritzen ditu, alde batetik bestera garraiatuz, opari eta aholkuak emanetz...

LIHER LARREA



Gazte eta nagusi 80 bat lagunek dihardu soinua jotzen ikasten eta beste 60ek panderoan.

Trikitrilarien jaia: goraka ari den zaletasunaren seinale


Arrasateko trikitilarien jaia da larunbat honetan, San Isidro egunean. Goizean goiz, Udalatik mendi ibilaldia egingo dute, Besaidera eta hastirik badago Tellamendira, gero 11etan Garagartzan biltzeko. Bertan, hamaiketakoak, jolasak, futbol-partidua, gero bazkaria eta bazkalostean, aide, jotzera! Arrasateko Trikitixa Eskolako pandero eta soinujoleak, irakasleak eta familietakoak bilduko dira, baina trikitixagatik afizioa daukaten guztiak daude gonbidatuta. "Bazkaria aparte, lekua egongo da gura duen guztientzat, behintzat salda eta txorizoa", esplikatzeko digu Rafa Garaik, Trikitixa Eskolako lehendakaria.

Eskola honen martxa onaren adierazgarri da jai hau, herriko trikitilariek egiten duten bigarrena. Aurten, 80tik gora ikasle daude soinua ikasten, eta beste 60 bat lagun, panderoarekin. Soinu irakasleak, Maixa, Maider eta Liher Larrea arrasatearra dira, eta panderoak Patxi Ropero. "Zaletasuna badago, hurrengo urterako *lista de espera* daukagu, propagandarik ere ez zaigu komeni", dio Garaik, harro-harro.

Hiru urte dabil lanean Trikitixa Eskola, baina bere aurretik SUDC elkarteak antolatatu zuen ikastaro bat. Hain denbora laburrean lortutako arrakasta aipagarria da benetan, izan ere, Mondragoe ez da izan sekula herri bereziki trikitizalea. "Inguruko herrie-

tan bai, baina inork ere ez dauka akordurik trikitilaririk hemen izan denik", komentatzen du Garaik.

Orain arte ez, baina aurretantzean Arrasateko trikitilariak edukiko dituen, gauza segurua da. "Badaude onak, jende gaztea dago, abildade haundikoa". Ikasleak, denetarikoa, 9 urtetik 42ra, trikitixa modan dagoen seinale. Eskolan oinarrizko teknikak irakasten dituzte, gero bakoitzak landu behar du bere bidea, tradizioa doinuetatik edo erritmo berriagoetatik. Oraingoan, ez da bikoterik irten plazarik plaza, baina ari dira jotzen jaunartze eta familia giroko bazkarietan. Hortik aurrera, laster ikusiko dugu...



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala


OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

· ESAERA ZAHARRA ·


*“Duenak kolkorako,
ez duenak
gerorako”*

· JEROGLIFIKOA ·



Zenbat urte du osaba Joxek?

· GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. AEDtik sorturiko aldizkaria. 8. zain-hori. 10. Alighieri, poeta italiarra. 11. Enauten kontsonanteak. 12. Mahometarren jainkoa. 13. Eguzki. 14. Nerabezaroan daude. 17. Azterketa. 18. Puntadun gorputz biribila. 19. (Ald.) Kontrol unitatea.

Bertikalak 1. Dagoeneko. 2. Arin. 3. Defuntuaren. 4. Leherkari ezaguna. 5. Euskal Autonomi Elkartea. 6. (Ald.) Radona. 7. Medikamenduak. 9. Finkatu. 13. Europako Ekonomi Elkartea. 15. Garai. 16. Berkelioa.

· HOROSKOPOA ·

Aries Aspaldiko lagun horrekin adizkide-tza komeni zaizu.

Taurus Gauza berri eta orijinaletara joko duzu.

Gemini Sekulako bizitasuna eta borondatea igarriko duzu.

Cancer Txikikeriatan ez bada ere, errez gastatzen duzu dirua.

Leo Nortasun gorabehera handiak daukazu eta besteek ez dakite nola asmatu.

Virgo Ez zara gauzak esatearekin konformatzen, baiezta egiten dituzu.

Libra Zorte ona datorkizu, jasadako kalteak leundu egingo baitira.

Scorpio Zeurekoi ari zara, eta ez ahaztu besteak ere hor izaten direnik.

Sagitaris Atsegina eta bihotz zabalara zara besteekin, begiko zaituzte horregatik.

Capricorn Sekulako bizitasuna eta borondatea igarriko duzu.

Aquarius Aspaldiko lagun horrekin adiskidetzeari komeni zaizu.

Piscis Zer edo zeri ekiten diozunean, beste eginbeharrak ahaztu egiten dituzu.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ALBERTO ERRASTI "BUTAKAS" EN GOMENDIOA •



Euskaraz ikastea gomendatzen digu Butakasek, horretan-txe ari da eta bera. Orexan, Iturriotzarren baserrian, Iribarrenen dago, baserriko lanak egin, arditara joan... eta jo eta fuego euskaraz.

"Edozein hizkuntza ikastea, oso ondo dago, baina Euskal Herrian bizi garenez, euskara beharrezko da". Lotsa kentzea da inportateena, gero "dena aldatzen da: bizitza, pentsamendua... Nik 29 urte eman ditut euskaraz hitzik egin barik". Hiru hilabete daramatza baserrian, eta beste horrenbeste egitekotan, "oso giro polita dago Orexan, eta jendea, izugarria!"

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



16 Igandea

8.15 Monterock
8.45 Mondragol

17 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea:
Hamaseigarrenean aidanez

18 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Bakarka: Maite Aristegi.
10.00 Asteko Zinea:
Hamaseigarrenean aidanez

19 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bakarka
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak Jokuan.
10.00 Asteko Zinea:
Hamaseigarrenean aidanez

20 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Pareak Jokuan
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan.
10.00 Asteko Zinea:
Hamaseigarrenean aidanez

21 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock.
10.00 Asteko Zinea:
Hamaseigarrenean aidanez

• SOLUZIOAK •

Berregel

JEROGILIFIKOA

BK.
Botak. 9. Inkau. 13. EEE. 15. Aro. 16.
Zenaren. 4. Tnr. 5. EAE. 6. Nr. 7.
Bertikalak: 1. Jadanik. 2. Azalako. 3.
Ikertea. 18. Kono. 19. uk.
10. Dante. 12. Ala. 14. Nerbeak. 17.
Horizontalak: 1. Jazien. 8. Azenano.

GURUTZEGRAMA

UGARTE

Industri
Hornidurak

Arrasate Pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 79 34 12

mokasin

Zapatak eta
osagarriak


Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK


Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

URRATS
AHOLKULARITZA

CARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE



Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaitzu...




*Zugandik hurbil eta harrituko zaituen prezioekin San Andresen,
autobus geltoki ondoan.*

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa. 77 14 86



Kirol bakoitzerako erantzun bat.

Astore, Reebok, Nike,
Adidas, Mito, Karhu,
Avia, Saucony,
Quicksilver, Libero,
Line 7, Asics, Salewa,
Boreal, Bestard,
Ellesse, Lutha, O'Neill



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño, 8
Tfnoa: 79 46 12 / 77 12 47
ARRASATE

